


ARGIA



— LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE —

Eta euskaldunen bizi gogo eskribatu zuen Etxeparek

Euskarazko lehen liburua Baionan ikusgai



**Macron, ultra-
aberatsak eta
injustiziaren
bizipena**

12 | DENA BLOKEATU



**“Nire pertsonaia
umoristikoak
ez dit graziarik
egiten”**

16 | AIMAR URIBESALGO



**Laborantza
herrikoiairen
hiru eguneko
topagunea**

32 | LURRAMAK 20 URTE

2.935 | 2025/10/19 | 4 €



DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #311

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



JEAN-BAPTISTE FRESSOZ IKERLARIA:

"ENERGIA-TRANSIZIOARIK EZ DA IZAN HISTORIAN"

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **SABINA HOURCADE**

Iritziak

- 21 | XIMUN FUCHS
- 22 | NORA SALBOTX
- 23 | MIKEL OTERO
- 23 | UXUE APAOLAZA
- 24 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


38 | **PRESOEI ONGIETORRIAK**

Euskal preso politikoei eginiko ongietorrien auzia pil-pilean egon da udan. 2022ko martxoan Ibai Aginagari Berangon egin zioten harreran parte hartzeagatik hemezortzi herritarrek deklaratu zuten Espainiako Auzitegi Nazionallean. Kasua ezagutarazteko eta auzipetuei babesa adierazteko, Berangokoekin Elkartasun Komitea sortu dute. Komite horretako kide diren Gabi Basañezekin eta Irantzu Maguregirekin mintzatu da ARGIA.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Frantziako 75 aberatsenek %0,3 bideratzen dute zergetara: Horregatik, entzun dezagun Zucman

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | AIMAR URIBESALGO

"Artaldekeria eta antiartaldekeria dependentzia bera dira"

Amets Aranguren

26 | LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE

Jalgi hadi mundura... eta hator etxera

Urko Apaolaza

32 | LABORANTZA | LURRAMA

Zazpi lurraldeetako laborantza herrikoia ohoratzeko jaia

Leire Artola

46 | LITERATURA | LEIRE UGADI

"Ez nuke mitin politiko bat emango, baina poesian eroso nago"

Leire Vargus


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axiar Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUIKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500064



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Espainia

Espainiak Abya Yalan aurkitu du bere existentziaren arrazoia. Espainiartasunaren erreferentzia arruntik ez zuenez, urriaren hamabia aukeratu zuten amets neokolonialaren eta aberriaren handitasunaren festa bihurtuta. Beraz, halakorik izatekotan, Amerika da Espainiaren aurkitzailea. 500 urte eta gero, ez da gai bere kabuz bere burua azaltzeko, bestearen zapalkuntza du beharrezko. Espainiaren sorkuntza eta garapen biolentoa elementu zibilizatzaile gisa aurkezten digute mestizajearen, fusioaren, ebanjelizazioaren eta "hizkuntza komunaren" legenda zoriontsuarekin batera. Beste batzuk zintzoagoak dira, eta berbera aldarrikatzen dute, baina moztortik politikoki zuzena kenduta. Horiek dira, Israelgo kolonoen gisan, asteburuan Gasteizen azaldu diren memeak. Baina are arriskutsuagoak dira hispanitatearen semea den egungo sistema kolonial eta arrazista "kultura eta aniztasun" gisa saltzen dutenak. Sánchez presidentea hala mintzo izan da faxismoak "jai nazionaltzat" finkatu zuen egunean. Espainiaren historiako (euskaldun asko tartean) epopeia militar handienaren nostalgia beti indar handiagoz itzultzen da haien aberria etorkizunik gabe geratzen hasten den orotan.

📷 AITOR KARASATORRE – FOKU

📌 AXIER LOPEZ

Milaka euskaltzaleri dei egin die Kontseiluak abenduaren 27an "giharra erakusteko"

 JON TORNER ZABALA

Bilbao Arena –Miribillako estadioa– leporaino bete nahi du Euskalgintzaren Kontseiluak abenduaren 27an. Iazko Euskararen Nazioarteko Egunean (abenduaren 3an) euskararen larrialdi egoeratik indarraldirako bideari ekiteko beharra aldarrikatu bazuen, indarraldia gorpuzten hasteko lehen urratsa eman nahi du Bilbon, milaka euskaltzale batuko dituen ekitaldian. Euskara eta kultura uztartuko dituen ekitaldia izango dela jakinarazi du Kontseiluak, eta sarrerak 10 euroan esku-ratu ahal izango direla Pizkundea.eus webgunean, urriaren 16tik aurrera.

Euskara larrialdi linguistiko egoeran dagoela adierazi eta urtebete geroago, Euskalgintzaren Kontseiluak bere diagnostikoa berretsi eta, "ezer aldatu ezean", euskararen etorkizuna jokoan dagoela adierazi du, asteartean Bilboko Kafe Antzokian eman duen prentsaurrekoan. "Larritzeko osagai guztiak" izan arren, itxaropen mezua zabaldu du, eta euskaltzaleei dei egin die indarrak batzeko eta euskararen etorkizunari norabide berria emateko.

"Euskarak, hizkuntza guztiek bezala, etorkizunik izango badu unibertso bat behar du, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu bat", esan du Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek: "Unibertso hori kultura da, euskarazko kultura, zailtasun gehigarriak erantsiko dietela jakin arren, euskaraz sortzen duten kulturgileek eskaintzen diguten unibertsoa". Egitarauaren inguruko xehetasunak aurrerago aletuko dituzten arren, aurreratu du musikak eta musikagileek, euskararen soinu-bandak, presentzia nabarmena izango dutela.

Gaineratu du aretoak hala eskatzen duelako ezinbestekoa dela bertara joan nahi duen guztiak sarrera bat izatea, "eta badaezpada lekua hartu eta gero ez joateko tentazioari nolabait aurre egiteko 10 euroko ekarpena egin beharko da". Ekarpene horrek artisten lana eta ekitaldiaren gastuen zati bat ordaintzen lagunduko duela azaldu du Kontseiluak: "Baina garrantzitsuena egun horretan Bilbao Arena euskaltzaleon bilgune handi bat bihurtzea izango da. Beraz, sarrera erosi eta gero joaterik ez duenak, eman diezaiola sarrera etorriko den norbaiti".



EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

Euskarak, hizkuntza guztiek bezala, etorkizunik izango badu unibertso bat behar du, zentzua emango dion irudi eta erreferentzia mundu bat

tzea izango da. Beraz, sarrera erosi eta gero joaterik ez duenak, eman diezaiola sarrera etorriko den norbaiti".

PIZKUNDE BERRIA, HERRITARREN BULTZADATIK

"Euskararen normalizazio eta biziberritzeak erronka handia du esku artean, eta bultzada sozial handia beharko da erronka hori euskararentzako aukera bihurtzeko", zioen Kontseiluak Euskararen Nazioarteko Egunaren harira plazaratutako oharrean. 2025a euskararentzat eta euskal hiztun komunitatearentzat "urte garrantzitsua" izango dela iragarri zuen orduan. Batetik akordio soziopolitiko berri bat bideratzeko "lanean sendo" ari zelako. "Zentzu horretan, erakundeei, eta era-gile sozial eta politikoei dei egin genien

euskararen auzia, euskararen normalizazio eta biziberritzea agenda politikoaren lehen lerrora ekartzeko, lehentasunetan jartzeko, egiturazko arazoei erreparatzeko". Bestetik, herritarrek gonbidatu zituzten euskararen normalizazio eta biziberritzeak behar duen arnasa berri horren kide eta bultzatzaile izatera. Orduan iragarri zuen aurtengo abenduaren 27an ekimen sozial handi bat antolatuko zutela Bilbon.

"Hain zuzen ere, horretara gatoz: herritarrei egindako gonbidapen hura berri-ritu eta zehaztera", azaldu zuen Kontseiluak. "Sinetsita gaude euskarak behar duen *Pizkunde berria* gure historia sozial garaikideko beste kinka larrietan bezala herritarren kide eta bultzadatik etorriko dela. Beraz, euskaltzale guztiei, baina, oro har, justizia sozialean eta gizarte kohesioan aurrera egin eta dibertsitatea bermatu nahi duten herritar denei, abenduaren 27an gurekin egon, eta euskarak behar duen *Pizkunde berriaren* parte izateko deia egiten diegu".

Ekitaldi hori, ostean etorriko diren beste mobilizazio batzuen abiapuntua izango da, "eta garrantzitsua da lehen urrats hori sendo ematea". Kontseiluak adierazi du Bilbao Arenan 8.000 lagun biltzea espero dutela. ●

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Risottoa



IMANOL EPELDE PAGOLA

27zapata.eus

Durango ez da lurreta pasata hasten: irailean hasten da eta ez da inoiz amaitzen. Hasi dira aurkezpenak bata bestearen atzetik: Bernardo Atxagaren eleberria, Eider Rodriguezen ipuinak, Danele Sarriugarteren *beste zerbait...* eta etorriko dira gehiago. Tentazio gehiago. Ping. Barkatu: mezua sartu zait.

Ni, bitartean, ari naiz irakurtzen 600 orri inguruko liburu bat. Eta zain ditut beste dozena bat. Baita ARGIA, *Jakin* eta *Berria* ere... Gero daude Telegram kanalak, Instagrameko *story* amaiezinak eta whatsapp-lerdoak. Eskaintza amaiezina da, buffet libre bat. Ping, ping. Barkatu berriz.

Irailetik aurrera ikusi ahal izan ditugu euskarazko zenbait film ere: *Jone*, *batzuetan*, *Maspalomas*, eta ea non ikustea lortzen dudun *Xiberoa kantuz loraturik*. Kontuan izan gabe musika: kolaborazio zoragarriak, disko berriak, letra bakoitza patxadan entzuteko gogo. Eta kontzertu- eta antzerki-agenda amaiezina.

Eta gero dago erdaretan argitaratzen den literatura, musika eta zine guztia, ez baitago Durango bakar munduan: Filmin, Netflix eta La 2. Ping. Isilean jarriko dut. Eta youtuber batzuk ere bai. Bueno, eta orain podcastak ere bai. Dena bihurtu baita gaur egun podcast: baita garbigailu bat zentrifugatzen ere.

Demagun jatetxe batera joan eta kartatik auke-ratutako risotto eder bat jaten ari zarela. Gozatzen. Eta, kolpera, kartako plater, ardo eta postre aukera guztiak ateratzen dizkizutela mahaira. Durangora. Eta kartan ez zetozen zenbait plater gehiago ere bai: lupia freskoa, adibidez. Jaten ari zaren risotto eder hori utzi eta gazta tarta bat jango zenuke orain, "dotoreziaren eta konplexutasunaren adibide" den ardo-kopa batekin: fruitu gorri, espezieen arrasto, oi hanpeko ukitu eta zergatik ez, zedro aire batekin. Ping ukitu batekin.

Eta nik, koitadu honek, tentazioz betetako enpatxu honen erdian, astean behin, jendeak nire testuak irakurtzea nahi! Konforme nintzateke aurrean daukagunarekin gozatuko bagenu, zer galtzen ari garen pentsatzen ibili gabe. Pong. ●



EKONOMIA

Marko propiotik, hobe



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Urriaren 15ean palestinar herriaren aurkako genozidioa salatzeke galdialdia egin dugu, indartsu. Itxi ditugu enpresak, elkarteak, egoitza publiko zein pribatuak, industrialdeak. Zaharren egoitzak edo ospitaleak ez, zerbitzu minimoak %100ean jarri dituztelako, zerbitzu ohikoak ez baitira minimora ere iristen. Hortxe, greba egunetan hain nabarmen geratzen zaigun errealitatea.

Euskal langileriak “nahikoa da!” esan du urriaren 15ean, berriz ere. Orain-goan ere bihotza birrinduta, elkartasunak ematen duen minez, inpotentziaren amorruaz. Eta irten gara kalera, ziurrenik nahi baino isilago, oihu egitea biolentzia dela barruan sartu digutelako akaso. Baina hain beharrezkoa da molestatzea, hain beharrezkoa da batzuen bakea oztopatzea, bestela aldarrikapena ez delako aldarrikapen, soilik geure barrenak baretzeko modua baizik.

Hiru edo lau orduko deialdia egin, agenda propioari lehentasun txikiagoa edo handiago eman, urriaren 15a ez da soilik genozidioa salatzeke eguna izan, edo ez luke izan behar. Ezinbestekoa da boikotatzea, Israelgo Gobernuarekin harremanak eteteko eskatzea, CAF bezalako enpresei interpellazio zuzena egitea. Iruñean Israelgo estatua estatu kriminala dela aldarrikatu genuen moduan, urriaren 15ekoa ez da izan, ez luke izan behar, *postureoak* babesteko mobilizazioa. Gobernuen *postureoak* salatu behar ditugu, benetako neurriak, blokeoak, boikotak exijitu behar ditugu. Praktikatuta behar ditugu, Carrefour moduko kateei iskin egiten.

Urriaren 15a ez da izan marko propioa aldarrikatzeko eguna, difuminatu delako Espainiako mobilizazioekin. Baina urriaren 16tik aurrera, marko propioaren aldeko borroka berreskuratu behar genuke. Euskal gehiengo sindikala, euskal gehiengo sindikala izan dadin. Galtzen ari garena gehiago gal ez dezagun, gure txikientzat gizarte justuago bat eraikitzen segi dezagun. ●

ANALISIA



Arrosarik ez, eskerrik asko

LEIRE ARTOLA ARIN

Lasterketa solidarioa bularreko minbiziaren kontra. Ideia paregabea, minbizia borrokatuko dugu korrika eginez. Ala minbizia dutenen alde ari gara korrika? Ez da oso argi geratzen hamarnaka markaren babesean antolatzen den martxa horien helburua, mezua arrosa bai, baina oso argia ez baita. Errealitate hau ezkututzen du: dortsalaren prezioaren zati txiki bat bideratzen da minbiziaren ikerketara, eta gainerakoa, arrosaz margotutako enpresa horiek erabiltzen dute. Urriaren 19an bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko egunaren harira sortzen den *pinkwashinga* salatu du Izan Iñurri elkarteak, minbiziaren akonpainamendu eta formazio feminista eta eraldatzailea eskaintzen dituen elkarteak.

Martxoan morez eta ekainean ortzadarraren kolorez margotzen diren marka eta instituzio berberak urrian itxuraz aldatu dira, irudia zuritzen jarraitzeko: arrosa-arrosa bihurtu dira. “Gure diagnostikoa, bularreko minbizia, ez da arrosa; beste minbiziak ez dira arrosak, zergatik emakumeona bai?”, galdegina dute Iñurriko kideek, beste elkarte batzuekin batera sinatutako manifestua aurkezteko. Sinatzaileek minbizia jasan dute, jasaten ari dira, edo gaixotasunak hil duen norbait agurtu dute; ez dago lazo arrosarik haien min fisiko eta emozionala arinduko duenik. Itxurakeriaz nazkatuta daude, ez dute errukirik nahi, eta “ausartak” edo “borrokalariak” direla esateak ez ditu sendatuko. Argi dute zer behar duen gero eta diagnostiko gehiago dituen jendarte honek: osasun publiko unibertsala, konpromiso politikoa, ikerketa, prebentzioa, metastasian fokua jartzea, arreta integrala –fisioterapia, nutrizioa, sexologia eta arreta psikologiko doako eta espezializatua barne hartzen dituen–, eta gaixotzen gaituzten substantzia toxikoak debekatzeko neurri politikoak hartzea.

Bai, jaten, arnasten eta azalean erabiltzen ditugun hainbat produktuk substantzia toxikoak eta minbizi eragileak dituzte, Garbiñe Larreak *Kosmetikoak sendabellarrekin* liburuan azaltzen duen bezala. Disruptore endokrinoak dituzten produktu horietako batzuk Estée Lauder kosmetiko taldekoak dira (Clinique, Mac, Smashbox...), azken sei urteetan zenbait ikerketak eta salaketak ohartarazi dutenez. Bada, lotsa eta errespetu gutxiarekin, enpresa horren *kanpaina arrosak* harro dio 30 urte daramatzala “bularreko minbizirik gabeko mundu baten alde” lanean. Bikaina da negozioa: minbiziaren ikerketara dirua bideratuko dutela aldarrikatuta makillajea saldu, irabazi horiekin aberastu –kopuru iragarri bat besterik ez baitute bideratzen ikerketara, marketin hutsa da–, eta substantzia kantzerigenoak dituzten ezpainetakoak sortzen jarraitu. Kasualitatea izango da emakumei bideratuta daudela produktu horietako gehienak.

Iñurri elkartetik eskatu dute markei dirua oparitu beharrean, zuzeneko dohaintzak egiteko. Urriaren 19an Bilbon eta Donostian elkartuko dira *Bularreko minbizia ez da arrosa* lelopean manifestatzera. Marea arrosan erori orde, titi bakar, burusoil, ile-ordedun eta orbandunen aldarrietara batzeko eguna izango da. ●

79.182

eusko banatu ditu aurten Euskal Monetaren Elkarateak lurraldeko elkarten artean. Marka berria lortu du eta Europako tokiko monetarik indartsuena da. Euskoaren erabiltzaileek aukeratutako lurraldeko 62 elkarte diruz lagundu dituzte aurten.

1.500

eurorainoko isunak eskatu ditu Baionako prokuradore ordeak zazpi auzipetuetatik seientzat, 2024ko Korrikan 36 migratzaileri "talde antolatuan" muga zeharkatzen laguntzea leporatuta. Ebazpena abenduaren 16an jakinaraziko dute.

7.000


tankeren ekoizpenean hartuko du parte SAPAk. AEBetako armadak SAPA Placencia, Aperribay familiaren enpresa, aukeratu du 7.000 tankeren transmisio-sistema hornitzeko.

"Euskara hedatzeko eta sustatzeko ezinbestekoak gara, ez dugu nahi makina batek ordezkatzea"

EUSKAL HERRIKO BIKOIZLEEN ELKARTEA

Elkarateak salatu duenez, Aritu adimen artifizialeko erreminta bikoizketak egiteko gai da, eta bikoiztaileen ogibidea zein bikoizketaren kalitatea arriskuan ikusten ditu.

2025-10-07



"ELKARBIZITZAREN GARAIA BUKATZEN ETA ESKUBIDEEN GARAIA IREKITZEN ARI DA"

HONDARRIBIKO JAIZKIBEL KONPAINIA BERDINZALEA

Datozen hiletako estrategia definitzeko eta "konponbiderako orria berriz ere marrazteko" lanean hasi dira.

OARSO BIDASOAKO HITZA (2025-10-09)

"1a 200 eguneko greba mugagabearen ondoren, antolaketa eta mobilizazioekin langileek erakutsi dute emaitzak lortzen direla"

ESK SINDIKATUA

Udalak azpikontrataturako Enviser enpresak eta langileen ordezkariak (LAB, ELA eta ESK) akordioa lortuta amaitu da Araban izan den grebarik luzeenetakoa.

2025-10-07



Sorkuntzarako baliabideak



DIANA FRANCO

Tim Berners Lee-k, internet denok erabiltzeko gai bilakatu zuenak, liburu berria idatzi du: *This is for everyone* (Hau denontzako da). Bere lanaren inguruko memoria bat da. Gaur egun, internetez edukiak zabaldu daitezke Berners jaunak sorturiko WWW (World Wide Web) teknologiarik esker. Sorkuntza eta elkarlana baliatzeko tresna edozeinen eskura jartzea izan zuen motibazioa, dio. Horregatik, WWW-k librea izan behar zuela ulertu zuen.

Gaur egun, ordea, Bernersek irudikatu ez zituen plataforma handien negozio eredu zapaltzaileek darabilte WWW-a, interneten erabiltzaileak produktu eta hiritar zapaldu bilakatzeko bidean. Beldur dio adimen artifizialak noraino kakaztu dezakeen errealtate hori, korporazio erraldoi horien eskutan baino ez badugu uzten internet. Gaur egun dugun errealtate honi aurre egiteko, eta interneten hasierako ideia berreskuratzeko, interneti loturiko beste mundu ikuskera bat eraiki behar dugula dio: internet modu deszentralizatuan ulertzen duena, eta erabiltzaileak datuekiko (pertsonalak zein jokabideari loturikoak) ahaldunduko dituen. Baina nola sortzen dira horrelako garapenak bideratzeko baldintzak? Zelan sostengatzen dira gizadiari tresna hobeak emateko lana egingo duten taldeak? Nik ez dut argi. WWWa funts publikoekin sustaturiko Cern ikerketa zentroan emandako aukezagatik gauzatu zela dio Bernersek. Bere ustez, etekinetan oinarrituriko enpresa batean ezingo zen sortu, horietan ez delako bizitza erdigunean jartzen.

Bizitza erdigunean jartzeari loturiko izaera hori OpenToonz software libreko programan ikusten dut. Toonz proiektu komertzialetik eratorria, Studio Ghibli bezalako eragile baten sorkuntza prozesuetara egokitze beharrak bideratu omen zuen bertsio librea. Horri esker, sorkuntzarako aukerak pertsona gehiagorengana ireki ziren. Linuxdun ordenagailu batean instalatu dut nik. ●

Kolonialismoaren zuriketa Donostian

AXIER LOPEZ

Donostiako Kaian hilaren 19ra arte ikusgai izango da Amerikako konkista eta arpilatzeari bandera berdea eman zion itsas-espedizioiko itsasontzi baten erreplika: Cristobal Colónen Santa Maria. Espainiarrek segitzen dute haien loria inperialari gorazarre egiten, bertoko arduradun politikoek kritika ezarekin.

Katea ez da eten, ez dute eten. Polizia, guardia zibil eta armadako kide artean eman zioten ongietorria ontziari. Mundua goitik behera aldarazi zuen biolentzia aro hori egun biolentziaren monopolioa duten eman diote segida aurkezpenean. Horrek protestak eragin ditu Donostian urriaren 12an.

Egungo sistema kolonialaren oinarriak ezarri zituen historia horrek lotura zuzenak ditu Euskal Herriarekin, lehenengo protagonistetatik hasita.

Colónen lehen bidaiak horretako hiru ontzietatik bat zen Santa Marian zortzi bizkaitar –Lekeitio ingurukoak– izan ziren haren zutabe nagusia, hainbat kantabriarrekin batera. Orotara 90 bat lagun joan ziren espedizioan. Arazoak izan zituzten tripulazioa osatzeko, tartean delituak zituztenak sartu zituzten, eta gehiengoak ez zekien zein ziren bidaiaren helmuga eta helburuak.

Bi hilabeteko zeharkaldiaren ondoren eta tripulazioa matxinatzeko puntuan zela, azkenik 1492ko urriaren 12an, Bahametako uharte batean lur hartu zuten. Colónen San Salvador ize-

na jarri zion. Hurrengo bi hilabeteetan Karibeko uharteetan ibili ziren, eta espedizioa ordaindu zuen errege-etxeko kideen izenekin irla horiek bataiatzen aritu ziren. Azkenik, Haitira heldu ziren, Colónen La Española edo Hispaniola izena jarri zion irlara. Orduko kronika batzuen arabera, hango bizilagun batzuek, europarrak jaingo hartuta, alabak eman zizkieten kriskitinen eta horrelako bitxikeria ezezagun eta balio gabekoen truke, lehen kolono zurien apeta sexuala asetzeko.

Istripu bat tarteko, Colónen Santa Mariaren masta nagusia moztu eta gotorleku bat eraikitzea erabaki zuen. Denak ez zirenez sartzen bueltako bidaiari, Amerikan bikingoen ostean ezarritako lehen kolonia hartan –Haitiko Navidad gotorlekuan– geratu ziren 39 pertsonen artean ere euskaldunak zeuden. Ia urtebete geroago, 1493ko azaroan, Colón itzuli zen 17 ontzitan 1.500 gizon baino gehiagorekin lur horiek menpean hartu eta kolonizatze asmo argiarekin. Natividad gotorlekua suntsituta aurkitu zuten, ez zen inor bizirik geratu. Konkistaren lehen urteetan, Haitiko lur haietan egondako Fray Bartolomé de Las Casas kronikagile ezagunak jaso zuen lehen kolono horien patua: “Colón abiatu ostean, [Haitin] geratu zirenak liskarrean hasi ziren, elkarri labankadaka. Bakoi-tzak beretzat nahi zituen emakume eta urre oro hartzen zuen, eta elkarrengandik aldentzen hasi ziren”. ●



BENAT PARRA / IRUTXULO HITZA

Bi urteko genozidioa, egunez egun

Gazako Gobernuaren Prentsa bulegoak emandako datuen arabera, 2023ko urriaren 7tik, Gazan bertan, batez beste Israelgo Estatuak:



18 ikasle eta irakasle 1
hil ditu egunero



367 etxebizitza
suntsitu ditu egunero



Mezkita 1 baino gehiago
eraitsi du egunero



Ur-putzu nagusi 1
bota du egunero



7 kilometro sare elektriko
suntsitu du egunero



394 familia etxerik gabe
utzi ditu egunero



959 metro ur-sare
suntsitu du egunero



4.000 metro errepide
birrindu du egunero



Desplazatuentzako aterpetxe bati
egin dio eraso 3 egunero

Hamas eta Israelen arteko akordioa martxan dela, Israel hasi da armada erretiratzeko eta herriar palestinarrek hasi dira pixkanaka guztiz suntsitutako dagoen Gazara itzultzen.

MOTZEAN

Urriaren 11n, ke zutabe handia ikus zitekeen Zubietako (Gipuzkoa) erraustegitik gora. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak "sute hasiera txiki bat" izan zela esan eta lasaitasuna transmititu nahi izan du, baina herritarrek segituan adierazi dute ardura eta ezinegona gertatutakoaren inguruan.

Literaturaren Euskadi Sariak iragarri dituzte. Eleberri saria Unai Elorriagaren *Francesco Pasqualeren bosgarren arima* (Susa) ipuin narrazioak irabazi du; Haur eta Gazte Literaturakoa, Karmele Mitxelenaren *Aitona Floren* (Elkar) liburuak; eta Ilustraziokoa, Maite Rosenderen *Traba* (Denonartean) lanak.

Aiaraldea Komunikabideko kazetari bati eraso egin diote desokupazio enpresa bateko kideek, Luiaondon etxe bat legeaz kanpo husten saiatzen ari zirenean. Mugikorra bota, eskua zapaldu eta mehatxuak egin dizkiote. Kazetariak enpresako kideak salatu ditu Laudioko komisaldegian.

Bertsio ofizialaren arabera, ETAko militante Montxo Martínez Antiak 1975ean bere buruaz beste egin zuen Madrilan, Poliziak inguratuta zuen eraikin batean. Eusko Jaurlaritzak bertsio horri eutsi zion 2015ean. Orain, GEBehatokiak ikerketa egin du eta ondorioztatu du poliziek tiroz hil zutela militante donostiarra.

FRANTZIAKO 75 ABERATSENEK %0,3 BIDERATZEN DUTE ZERGETARA: HORREGATIK, ENTZUN DEZAGUN ZUCMAN

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

2018ko Jaka Horiak oraindik gogoan dituztela, "guzia blokeatzeko" protestari hasiera eman zioten irailaren 10ean Frantziako Estatuko hainbat herri eta hirietatik, baita Ipar Euskal Herritik ere. Aitzina doa mugimendua. Krisi politiko potolo baten erdian, ahal bezala aitzina doa gobernuarenean, lehen ministroen dimisioz dimisio. Karrikak hartu nahian dabilta herritar xumeak, Emmanuel Macronek prekarioenei inposatu murrizketez eta aberatsei egin opariez nazkatuta. Kexu horren bozera maile izan nahi du Parlamentuan ezkerak eta *Zucman zerga* du lehentasunetan: Frantziako 1.800 ultra-aberatsenen ondasuna %2 zergapetzea. Sutsuki kontra dira, Macron bera, eskuina eta Kapitala.

Ez dugu ezer onik jasoko gobernutik, ez dago ezer negoziatzeko: karrika mespretxatzen dute, herria mespretxatzen dute. Horregatik masiboa izan dadila erantzuna, urriaren 2an guzia gelditu dadila, guzia blokeatu dadila. Guzia okupatu dezagun, greba egin dezagun, denetan eta masiboki". Horra zer irakurri zitekeen *On bloque tout* [Dena blokeatu] mugimenduaren komunikazio kanaletan.

Irailaren 10ean abiatutako dinamika 2018ko Jaka Horien mugimenduarekin antzekotasun handiak dituela ezin uka: jomugan daukatena –Frantziako Gobernuaren politika neoliberalak, gora doan prekaritatea, agintarien eta herritarren arteko arrakala...–, funtzionamendua –alderdi eta sindikatuetatik kanpo egituratua, oinarritik eta tokian toki modu autonomoan bideratua– eta borroka-bideak –blokeoak, espazio publikoaren okupazioa...–.

Baina, duela zazpi urtekoa oraindik izpirituetan izanik, bi osagai berri gehitu behar zaizkio. Batetik, herritar andana batzeko gaitasuna izanda, badirudi ezkerreko alderdiak eta sindikatuak gehitu zaizkiola hastapenetik dinamikari, eta hori bada zerbait Jaka Horietan ez zena eta agian askatasun haizea ahuldu dezakeena. Bestetik, estatuak ere badaki zer nolako gaitasuna izan dezakeen herritarren mobilizazio autonomo batek eta lehen egunetik die erantzun poliziala zuzendu, blokeo eta bide mozte oro berehala geldiarazita. Hasi aitzin moztu bidea, hori izan da Macronen jarrera.

Nola ez, izandako zerbaiten erreplikapean ez dira sistematikoki kausitzen lehen aldi hartako sorpresa, ilusioa eta ameslari kutsu itxaropentsua. Ikusteke dago beraz zein bilakaera hartuko duen herritarren kexuak. Argi dena da oinarrian den prekaritateak hor segitzen duela, eta gobernuak gauzatu politika neoliberalak egoera hori are bortitzagoa bihurtzen dutela. Are gehiago, ultra-aberatsak geroz eta aberatsago diren honetan: Frantziako Estatuko aberatsenen aberastasuna bikoiztu egin da azken hoge urteetan; eta 500 aberatsenen ondasuna, berriz, 400.000 milioi eurokoa izatetik 1.200.000 milioi euro izatera pasa da 2003 eta 2023 artean.



2017an presidente bihurtu eta hortik hilabete batzuetara desagerrarazi zuen ultra-aberatsei bideraturiko ISF fortunaren gaineko zerga Macronek. Argazkian, Frantziako pertsona aberatsena den Bernard Arnaultekin. Ultra-aberatsak sutsuki dabilta Zucman zergaren kontra.

**“Fortuna biziki handiek
pribilegio fiskal erraldoia dute.
Beste kategoria sozialek baino
anitzez gutxiago ordaintzen
dute zergetan”**

Gabriel Zucman

Pobreenak, aldiz, geroz eta pobrea-
goak dira, Insee estatistika institutuak
erakusten digun bezala: 1998 eta 2021

artean, %10 pobreenen ondarearen ba-
linoa %54 apaldu zaie eta aldiz, %10 abe-
ratsenena %94 igo. Erran daiteke beraz
pobreenak bi aldiz pobreagoak direla eta
aberratsenak bi aldiz aberatsagoak. Zifra
horiek gorputzetik bizi dituzte, ez dira
estatistika egileen Excel tauletara muga-
tzen. Horregatik 2018ko matxinada eta
2025eko matxinada gosea.

ULTRA-ABERATSEN PRESIDENTEA

Ultra-aberatsei opariak egiten dizkien
lehendakari gisa ezaguna da Emmanuel
Macron. *Le président des ultra-riches. Ch-
ronique du mépris de classe dans la poli-
tique d'Emmanuel Macron* (Ultra-abera-
tsen presidentea. Emmanuel Macronen
klase mespretxuaren kronika) liburua
bideratu diote fenomenoari Pinçon se-

nar-emazte soziologoek. Zera diote *Libé-
ration* egunkariari eskainitako elkarriz-
ketan: "Bere izateko eta gobernatzeko
era osoki lotuta dago bere inguruneare-
kin, hots, boterearen eta diruaren ingu-
ruarekin. Iraganik gabeko *ovni* politiko
bat balitza aurkeztu ziguten, baina gure
ikerketek aurkakoa azaleratu digute.
Bere politika sozial eta ekonomikoaren
edukia, bere ibilbide soziobiografikoa
eta sare oligarkikoak aztertu ditugu,
baita horien arteko elkargurutzatzeak
ere, eta argi geratzen da zirkulu horre-
tako osagaia dela, boteretsuen babesa
eta inbertitzaile eskuzabalen laguntza
jasotakoa dela".

Frantziako ENA eliteen eskola ospetsu-
tik atera berri, berehala integratu zuen
oligarkiaren zirkulu hertsia, Rothschild

AFP



AFP

DENA BLOKEATZEKO 2018ko Jaka Horien mugimendua oraindik gogoan, "dena blokeatzeko" mobilizazio popularra abiatu zuten irailaren 10ean milaka eta milaka herritarrek. Justizia fiskala eta ultra-aberatsen zergapetzea bada aldarrikapenen artean.

Bankuan zuzendaritza postu bat jasota, eta hortik Ekonomia ministroaren kargura salto egin zuen 37 urterekin. Bere ibilbidean zehar laguntza luzatu dioten ultra-aberatsen zirkulu hertsia opariak egiteko baliatzen du presidentetza. Fortunaren gaineko ISF zerga kendu zien 2017an, aberatsenen zerga ihesaldiak gutxitzeko zegoen *exit-tax* zerga ere kendu zien 2018an; eta itxura guziaren arabera, ultra-aberatsen zerga ihesaldia doi bat oztopatzeko bidean, beraien aberastasuna %2 zergapetzeko asmoz landutako *Zucman zerga* ere baztertzera doa.

ZER DIO ZUCMANEK?

Baina zertan datza azken asteetan aho guzietan dabilen *Zucman zerga*? Eta nor dugu proposamenaren oinarrian den Gabriel Zucman, 39 urteko ekonomialaria? Ekonomialaria, irakaslea eta Europar Batasuneko Zerga Behatokia laborategi independenteko ikerle den frantses hau ezagun egin zen iazko G20 gailurrerako Brasilgo presidente Luiz Inazio da Silva *Lula*-k eskatu zion txostenarekin. Ezberdintasun sozialak gutitu eta ultra-aberatsak zergapetzeko bideak lantzeko ardura zuen eta karia horretara plazaratu zuen munduko aberatsenen aberastasuna %2 zergapetzearen proposamena. Ondokoa zioen: "Fortuna biziki handiek pribilegio fiskal erraldoia dute, beste kategoria so-

zial guzietan baino anitzez gutxiago ordaintzen dute zergetan". Zenbaki ofizialekin oinarrituriko bere kalkuluen arabera, munduko 3.000 aberatsenak %0,3 zergapetzen dira gaur egun. Nolaz? Beraien aberastasunaren zati handi-handi bat ez delako soldatan kontabilizatua, baizik eta dibidendu, akzio, higiezin, zerga ihesaldi ala bestelakoetan. Nahi izanez gero, bide anitz existitzen direlako estatu baten zergak saihesteko. 1.000 milioi dolarreko ondasuna baino gehiago duten horiei %2ko tasa jarritz gero, urtero 200.000 eta 250.000 milioi dolar gehiago irabaziko lirakeke –eta gehitu 100.000 milioi eta 140.000 milioi dolar gehiago, 100 milioi eta 1.000 milioi arteko aberastasunei bideratzen bazaie–. G20tik Zucmanek estatu guzietan galdetu zien neurri hori ezartzea.

Ideiak bere bidea egin zuen Frantziako Estatuan, eta ezkerreko ekologistek egin zuten lege proposamena. Diputatuak alde bozkatu zute otsailaren 20an, baina kontra, berriz, senatariek ekainaren 12an. Baina aktualitatean segitzen du lege proposamenak, ezkerreko esku artean sendoki harturik duelako. Eta gobernua krisi politiko potolo baten erdian galduta dela, marra gorri gisa ere erabiltzen du: *Zucman zerga* ezarritz gero gobernua zentsuratzeko mehatxua baztertuko lukete –baita erretretaren erreforma deuseztatuz gero ere–.

1998 eta 2021 artean, Frantziako %10 pobreenen ondarearen balioa %54 apaldu zaie eta %10 aberatsena %94 igo. Bestela erranda, pobreenak bi aldiz pobreago dira eta aberatsenak bi aldiz aberatsago.

Iazko udaz geroztik Parlamentuan gehiengo argirik ez du Macronek, eta oposizioaren parean ahulegia da, zentro eta eskuinaz gain, eskuin muturreko edota ezkerreko boto zenbait ere behar dituelako aitzina egiteko. Ezkerreko Fronte Herritar Berriaren garaipena dela eta ezkerreko lehen ministro bat izendatu beharko zuen, baina ez zuen horrelakorik egin eta geroztik ahal bezala dabil, gobernuak desegin eta berregin.

Konfiantza mozioaren bozketa galdurik, François Bayrou lehen ministroak



ZUCMAN, EKONOMIALARIA G20aren iazko gailurrean aurkeztu zuen munduko 3.000 aberatsenak %2 zergapetzeko proposamena. Eskuineko argazkian, Ghosh eta Stiglitz ekonomialari ezagunak Legebiltzarrean, zerga horri buruz Kapitalak zabaldu ideia faltsuak gezurtatzen ari.

dimisioa eman behar izan zuen irailaren 9an eta Sebastien Lecornu zen orduz gerotik lehen ministro berria, aitzinekoa bezala hari baten gainean aitzina egin beharrean zebilena. Azkenean bere kargua utzi du berak ere, urriaren 6an, gobernu berria osatu eta hamalau ordutara. Aste luzeetan aritu da alderdi zein sindikatuekin negoziatzen, hain justu ere, eskuin muturraren edota ezkerraren partetik zentsura moziarik ez aurkezteko bermea irabazteko. Baina horrelakorik ez du lortu, eta egoera hauskorregia dela ikusita nahiago izan du dimisioa berehala aurkeztu. Erabakia onartuta ere, 48 orduko ultimatum eman zion Macronek, "azken saiakerako negoziaketak" buru-

tzeko. Epea bukatu bezain laster France 2 telebistan elkarrizketa eskaini, baina ez zuen soluziorik plazaratu. Lehen ministro berriaren eta gobernuaren osaketa adosteko negoziaketen segida Macronen esku utzi zuen. Eta ezkerraren marra gorriei dagokionez, erretreten erreformari buruzko "eztabaida" berriz hartzea inportantetzat jo badu ere, *Zucman zerga* hastapenetik dute baztertuta.

KAPITALA, SU ETA GAR, KONTRA

Frantziako pertsona aberatsena eta munduko hirugarrena den Bernard Arnaultek "ezker muturreko militante" gisa aurkeztu du Zucman. Ekonomialarien partetik aitortza eta errespetua irabazitako aditua

izanda ere, irudi hori zabaltzen dabilta Frantziako *mainstream* komunikabideak: "Komunista", "abertsekiko herraduna", "proposamen kimerika", hiztegi sinplista, Frantziako patronalaren sindikatu Medef-ak ere sutsuki bere egin duena.

Hainbeste, non eta bi ekonomialari ospetsuk egon behar izan duten Legebiltzarrean, Kapitalak zabalduetako ideia faltsuak gezurtatzeko pedagogia lana egiten: sari andana irabazi izan dituen Indiako Jayati Ghosh eta Ekonomia Nobel sariduna izandako Joseph Stiglitz. Urriaren 1ean izan zen ezohiko ariketa interesgarri hori. Baina berdin dio: herritarren %0,001 horiek botere handiegia dute eta ez da lekurik justizia fiskalarentzat. ●



Hernani 23, Donostia

T 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM

Zinkunegi Optikan ikasturte hasierarekin batera **umeei zuzendutako** ikusmen azterketak egiten ditugu.

Ukipen-lenteak, miopiaren kontrola eta ikusmen terapia ere baditugu.

Aimar Uribesalgo

ESOTERISMORIK GABE, IRAULTZARIK EZ



ARTALDEKERIA ETA ANTIARTALDEKERIA DEPENDENTZIA BERA DIRA



Kevinen fan egin eta hilabete gutxira jakin nuen nor zen Aimar Uribesalgo. Antza, nik *Beranduegi* podkastean entzuten nuen surfista izena zuen gaztea, Aimar izatera itzultzen zen mikrofonoak itzaltzearekin batera. Telefono dei batean ezagutu genuen elkar duela lau urte eta, bere hitzetan, *telekolega* gara ordudanik.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Kevin eta Aimar, biak mintzo dira askotan umoretik.

Oso tresna indartsua iruditzen zait umorea norbere itzala ateratzeko orduan. Gustuko ez ditugun gauzak beste modu batera begiratu ahal izateko tresna indartsua da eta nik erabili egiten dut. Dudan arazoa da nire barne-umoregile horrek kontrolatu nauela ni eta ez alderantziz. Nire egoaren adierazpen bat izan da barne-pertsonaia umoristikoa eta pertsonaia horrekin aspertzen hasia naiz.

Umorea gutxiago erabiltzen ikasten ari naiz, ondo afinatzen, nire pertsonaia horrengatik alienatuta ez egoten. Eta hori integratzen noan heinean ari naiz garatzen besteen barne-umoregilea

ikusteko gaitasuna. Esaldi batean laburbilduta: nire pertsonaia umoristikoa ez dit graziaz egiten.

Bestelakoa da, hala ere, zure ogibidea: natur eskola batean egiten duzu lan.

Ingurumen Zientziak ikasi nituen. Ingeniaritza munduari begira egon nintzen lehenago, inguru sozialak bideratuta; Oñatin bizi naiz eta industriad inguratuta gaude, kooperatibismoa eta hori dena, badakizu.

Gero jakin nuen ingurumen zientziak existitzen zirela eta etorkizunean lan-munduan aukerak izango nituelakoan ikasi nuen, bestela filosofia egingo nukeen.

Hala ere, zorte handia izan dut. Asko gustatzen zaidan lan batean ari naiz. Niretzat lanera joatea hona zurekin elkarrekin bat egitera etortzea bezala da. Taldeak etortzen dira eskoletatik eta ingurumen-hezkuntza lantzen dugu: errekan, kobazuloan, mendian, zelaian, animaliekin, zorroekin...

Barne-munduekiko ere interes handia duzu.

Azkeneko bost urteetan hiru bizi-porrot bizi izan ditut, oso indartsuak. Aita izateko proiektuarena, Kimua antolakunde politikoaren sorrerarena eta baserri komunitate baten parte izatearena. Pentsa zenbat ikasi ahal izan dudana hiru porrot



Aimar Uribesalgo

OÑATI, 1988



Ingurumen Zientzietako lizentziatua egin eta Oñatiko Natur Eskolan ari da lanean aspaldi. Behin baino gehiagotan birbideratu behar izan du bere bizitza azken urteotan. Hala, ikastaroz ikastaro ibilia da, barrenak landu eta ordenean jartzeari lotuta gehienak; alor horretan ikusten du egungo militantzia politikoa hutsunerik handiena. Horri estuki loturiko Irati Gorostidiren Aro Berria pelikula berriko protagonistetako bat da Uribesalgo.

horietatik. Zentzu horretan, porrotak izan dira, baina lorpenak ere bai. Interesgarria izan da gauzak askatzen eta identitatearekin beste modu batera jokatzeko ikastea. Identitaterik eza ez da posible, baina, aldi berean, identitatea oso errotuta izatea ere ez dut uste osasuntsua denik.

Porrotek nire barruan pasatzen ari zenaz jakin-min handia izatera eraman ninduten eta horren harira hasi nintzen ikastaroen munduan, oso topera. Azkenengo bost urteetan a *muerte* egon naiz. Nahiko terreno zabala ikertu dut eta orain barne-lanketan bide bat egina dudala, zenbait irizpide barneratu ditut. Lehen pertsona zurrin eta dogmatikoa goa nintzen, gizon marxista burukarritu tipiko bat.

Ikastaro andana egina zarela aipatu duzu. Horregatik egin duzu hitzordua gaur Zarautzen, hain zuzen ere.

Bai, adikzioa uzten ari naiz gutxinaka, baina bai. Hemengo ez da hainbeste ikastaro bat, baizik eta terapia: *Begiz gairikoa ikusmena* du izena. Intuizioa lantzen da batez ere. Helburua da begiak erabili gabe ikustea: eskuekin, bihotzarekin, buruarekin... sentituz. 6 eta 12 urte arteko pertsonen artean %100ekoa da arrakasta, begiak estalita edo ilunetan irakurtzera heltzen dira.

Nik lehen, ezagutza teoritik zeterrela uste nuen, liburuak irakurtzen nituen, marxista onak bezala. Gorputza lantzen hasi nintzen konturatu nintzen baditugula beste informazio kanal batzuk arrazionaletatik aparte: korporea, emozionala, intuitiboa... Orduan konturatu nintzen zenbateraino nengoen erratuta. Horretaz jabetzearekin batera infinitura naraman ate bat ireki zitzaidan.

Modu esplizituren batean ezarritakoaren kontra zoazela kontsideratzen duzu?

Bai, eta ez da positiboa niretzat. Artaldekeria eta antiartaldekeria dependentzia bera dira. Dependentzia baren bi adierazpen. Ni antiartaldekerian kokatu izan naiz eta beti izan naiz nire inguruan ertzetako pertsona, xelebrea, arraroa... Kontrakotasunetik erlazioan izan naiz munduarekin eta horretarako joera handia dago politikan eta antolakunde iraultzaileetan, adibidez. Dependentzia bat da eta ez dut uste

dependentzia horretatik maitasuneko potentzia asko garatu daitekeenik.

Dependentzia hori gutxitzen nabilen heinean, beste gaitasun batzuk garatzen hasi naiz.

Zer ari zara gutxitzen?

Kanpo-begiradarekiko dependentzia, besteak beste. Famatu izatea, adibidez, asko gustatzen zait. Atentzioa eta errekonozimendua jasotzen ditut eta, horien bitartez, nolabaiteko maitasuna. Baina, aldi berean, badakit ez dela benetakoa maitasuna, suzedaneo bat baizik, ogi apurra dira. Hori esan zidan nire maistra espiritualak, Gemak.

Ni egoa ari naiz gutxitzen, egoa ulertuta guztiok geure izaera egituratzeko fazeta gisa, gorputzarekin konexioa handitzen ari naizelako eta, ondorioz, nire arrazionaltasuna, nire burua, nire disoziazioa gutxitzen dabil. Gorputzarekin konexio handiagoa daukadan heinean, gaitasun batzuk irabazten ditut, nire eta nire ingurukoen alde. Orain, adibidez, lehen baino enpatia handiagoa daukat.

Baduzu beste adibiderik?

Bai. Niri probokatzea gustatzen zait. Orain probokatzen ari naiz e, ez pentsa, erori egiten naiz... Baina lehen gehiago egiten nuen. Probokazioa pertsonen arteko distantzia emozionala markatzeko mekanismo gisa ulertzen dut. Beste pertsona batekin konektatzeak inplika dezakeelako mina: konexioak deskonexioa ekar dezake, eta ni menpekotasuna duen pertsona naizenez, nire bulkada ez da konexioa, baizik eta deskonexioa eta probokazioak horretarako balio du. Nik probokatu egiten zaitut, horrek zuregan inaktua dauka eta ez du ahalbidetzen erlazio sakonik sortzea.

Beste alde batetik, gauza disruptiboak ere gustatzen zaizkit. Antiartaldekeriaren estiloa gustatzen zait eta nire probokazioa ere zentzu horretan doa, gustatzen zait normala dena apurtzea [ekarri duen mapa kontzeptualari begiratzen dio].

Uste duzu jarrera probokatzailerik hori tresna bat dela beste batzuk baino gehiago zarela sentitzeko?

Bai, seguru. Dena den, hau nire afera bat balitz bezala ari naiz kontatzen, baina oso kontu arrunta dela esango nuke, hainbat arlotan ikusten dena, politikoa, adibidez. Ez naiz politika instituzionalaz ari, hori ez zait bereziki inportantea, antolakundeez ari naiz.



Adibidez, marxismoak ekarpen handiak dituen moduan, bere gabeziak direla-eta kalte ere egin du eta zentzu horretan gainditutzat dut. Ez mugimendu historiko gisa, zentzu horretan existitzen direlako antolakunde batzuk premisa marxistak dituztenak: Euskal Herrian bertan Mugimendu Sozialista, ezker abertzalea, mugimendu feminista... Mugimendu gisa ez, baina logikoki, nire ustez, agortuta dago. Ezagutza eraikitzen du modu batera zeinetan saihestezina den patro horien erreprodukzioa: besteen gainetik sentitzea, dogmatismoa, zurruntasuna... Horrekin ez dut esan nahi militante guztiak berdinak direnik, baina badago zer edo zer kolektiboa dena eta orain hori ikertzen nabil.

Nola?

Nire inguruko jende politikoak leku guztietatik gabeziak dituela ikusi dut eta hori kontuan edukita pentsatzen nuen "honek zer zerikusi dauka gaur egun politikara jauzi egiteko orduan erabiltzen

dugun paradigmarekin eta, batez ere, marxismoarekin?". Eta harreman zuzena dagoela ikusten ari naiz.

Adibidez: marxismoarentzat kontzientzia hizkuntza-ren bidez sortzen da, kontu arrazionala da. Baina ni gai bainaiz neure burua aldatu eta munduari beste modu batera begiratzeko eta harekin erlazionatzeko, ez da prozesu arrazional bat izan dudalako bakarrik, baizik eta beste metodo batzuk ere erabili ditudalako. Eta hau ez da gauza berria, milaka urte daramatzate beste tradizio batzuetan kontu honekin.

Politikan, oro har, bakoitza bere artaldekerian dago eta bada beste iturri batzuetatik edan eta sintesi berriak sortzeko ezintasun handia. Oso paradoxikoa da, baina marxismoa marxismoan geratu

da trabatua. Badaude berrikuntzak, Mugimendu Sozialistaren aldetik, adibidez, baina berrikuntza horiek guztiak paradigma horren barruan egiten dira eta, hortaz, mugatuak dira. Marxismoa askotan idealismoan jausten dela ikusten dut. Ezagutza ez duenez gorputzarekin konexioan eraikitzen, arrazoari ematen dion paper eta rola desorekatuak dira, eta askapenaren bidean dominazio forma berriak erreproduzitzen dituela ikusten dut.

Aktiboki entzuteko gaitasuna daukazu. Hori ere ikastaroei esker izan da?

Formazio bat egin nuen sistemika munduan eta uste dut hor asko garatu nuela. Ariketa bat egin nuen, parekoa entzutekoa: arrazionalki besterik ez nion egin behar kasu, alderdi arrazionalari, ideiei, hitz bakoitzari erreparatuz. Bigarren entzunaldi bat egin nuen gero, ez hainbeste esaten zuenari erreparatuz, baizik eta energiari: nondik ari zen hitz egiten, gorpuzkera, keinuak... Eta oso oso diferenteak dira entzuteko moduak. Lehen lehenengo taldean nengoen, orain bigarreanean.

Guk ideologiarekiko erlazio emozionala daukagu eta segun eta nola bizi duzun ideologia, modu bateko edo besteko harremanak egingo dituzu beste ideologia batzuekin. Eta honek dauka zerikusia orain arte komentatu dugun guztiarekin.

Eta norbait ari da arraunean norabide horretan?

Kurduak heldu dira dagoeneko. Paradigma marxista-leninista bat zeukaten lehen eta paradigma horretatik irten zirenean heldu ziren. Proiektu politiko bat dute, baina, aldi berean, problematizatzen dute mentalitatea, izaera. Uler-tzen dutelako dominazioa ez dagoela kanpoan eta etsaia ez dagoela bakarrik barrikadaren beste aldean, gure barruan ere badago.

Etengabeko analisirako joera sumatzen dizut.

Askok gustatzen zait gauzak klasifikatzea, baina aldi berean aspertuta nago. Jarraituko dut, baina munduarekin klasifikazioaren bidez erlazionatzean informazio bat galdu egiten da eta orduan interesatzen zait, eta aldi berean ez zait interesatzen. Iñaki Seguralista bat naiz.

“
**Lehen pertsona
zurrun eta dogmatikoagoa
nintzen, gizon marxista
burukarratu tipiko bat**

Horrek zer esan nahi du?

Berak asko hitz egiten zuen baietzaz eta ezetzaz, eta lehengo euskal pentsamenduaz, pentsamendu baiezkariaz, “bai baina aldi berean ez” horretaz. Pentsatzeko oso forma interesgarria da.

Azal dezakezu pixka bat hori?

Gure pentsamenduak positiboki funtzionatzen du oro har. Gauzak zer “diren” esaten dugu beti. Aldi berean, pentsamendua eta gu geu pertsona gisa mugatuak gara, ez gara egia absolutura sekula iristen, beti gara erlatiboak edo partzialak, baina egia partzial orok egia izaten segitzen du. Eta bide horretatik, oso interesgarria da nolabaiteko tokia ematea ezjakintasunari eta misterioari. Hutsunearen bidez ere eza-gutza eraiki egiten da.

Pentsamendu baiezkaria izango litzateke baieztapenak egiten dituen pentsamendua, baina, aldi berean, egia partziala den heinean eta misterio baten barnean kokatutako egia den heinean, ezetza ere bada, ez delako baiezkota absolutua.

Berriki estreinatu den Irati Gorostidiren Aro Berria pelikulako protagonistetako bat zara. Zergatik zu?

Hiru arrazoiengatik hautatu ninduten ni: batetik, proiektu proposamenarekiko atxikimendu handia nuelako eta horren bila ari zirelako, ez zituzten aktore “onak” nahi edo ez hori bakarrik. Bestetik, katarsira iristeko helburuz planteaturiko ikastaro batzuk ere egingo ziren eta horretarako prest zegoen jendea nahi zuten. Eta, esan bezala,

“

Nire pertsonaia umoristikoak ez dit graziazirik egiten

ikastaroz ikastaro eman ditut azken urteak. Kointziditzen zuen nire fazeta hippyarekin. Beste kontu bat da ni zenbateraino nagoen ados edo ez hor gertatzen ziren praktikekin.

Horrez gain, kastina oso ondo egin nuen. Ikasitako gidoiaren zati bat antzezten hasi eta hain ondo egin nuen, pentsatu zutela benetan ari nintzela hizketan.

Eta, azkenik, melena nuen.

Nola bizi izan duzu prozesua?

Hasieran txiki sentitzen nintzen, aktore printzipaletatik ni nintzelako pertsona bakarra ez zena inoiz horrelako ezertan ibilia. Baina denbora guztian ondo pasatzen egon naiz.

Kezkatzen ninduen aktoreen munduan sartzeak, “artisteo” horretan barneratzeak, ez baita mundu erraza. Orain arte aipatu ditugun gauza horiek, gainetik begiratzea, berezi sentitzea, atentzioen kontua, hori

nola kudeatzen dugun... Hori dena sartzen zen jokoan. Baina gero, dena oso ondo joan da aktoreekin eta ikastaro-emaileekin, *bua!*, oso ondo egon naiz.

Eta orain ari naiz lehen komentatu dizkizudan ogi apurak, ospari lotutako mai-tasun faltsu hori kudeatzen.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Aipatu nahi nuke orain arte atera diren ideiek pelikularekin estuki egiten dutela bat, zuzenean agertzen dira subjektuen auzia, barne-lanketarena, esoterismoarena.

Komunitate horretan gertatu zen fenomeno interesgarrienetako zera da, askapenaren izenean azkenean biolentzia zegoela, askapenaren izenean alienazioa zegoela. Askotan errepikatzen den patroia da, dominazioa erreproduzitu egiten da. Ez naiz ausartzen esatera leku guztietan hala denik, kurduekin oso desberdin bizi izan baitut: haiek ez naute hitzez konbentzitu, integritatetik baizik, moja iraultzaileak direlako. ●



FEDERAZIO KONGRESUAK

**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Iritziak

'Harituz' fini da



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

23:45. *Nor Naizen Baneki* sor-kuntza berrian murgildua naiz. Irulegiko eskuaren aurkikuntzak piztu zidan ikuskizunaren lehen txinparta: nire historia ezagutzen ez badut, ezkutatua zaidan historiaren preso egotera kondenatua izango naiz. Ez naiz patuaren zentzua induskatzen ari ikuskizunean, izatekotan kontrakoa. Infernuko gupil zoro horretatik ateratzeko tresneriaren bila nabil, menpeko bilakatu gaituzten mekanismoak ulertu nahian. Salbaia naiz oraindik askoren-tzat, gizakia ez oraindik.

Elkarrizketa baten amaieran, kazetari batek nire ARGIAko iritzi-artikuluak irakurtzen dituela aipatu dit, eta etsipena eragiten diotela aitortu. Hil kanpaiak etengabe jotzeak desesperazioa sortzen du. Ez al diegu aurrerapausoei so egin behar noizean behin? Harrapatua, ez dut jakin ihardesten. Erasoak salatzea hil kanpaiak jotzea da? Jarrera euskarafoboak eta oldarkorrek seinalatzea patuari aurre egiteko molde bat ere izan daiteke, ez? Ez dugu mespretxua pairatzerik, irainak onartzerik ezta egunerokoan egiten diren min eta zauriak isiltzerik ere. Ez dut ahalkerik jasandako umiliazioengatik, ez baitira nitaz mintzo, euskarafobez eta gure etxeko konplizeez baizik. Maskarak kendu beharko ditugu egun batez, euskararen eta kulturaren erronkei heltzeko gogorik badugu behintzat.

Urriaren 17an, gure antzezlanaren estreinatuko dugu Luhuson, *Harituz* eki-

Kulturan hizkuntza
burokratiko-teknikoa
erabiltzeak azpi zentzu
argi bat dakar: herritarrak
profanotzat hartzea.
Mintzaira korapilatze-
koa lana maskara bat da

mena kari. Baina *Harituz* fini da. Azken aldia izango da, gure lehen partaide instituzionalak ez baitu bere hitza bete, eta ez naiz diru kontuez soilik ari. Sortzaile galziarrak gonbidatu ditugu euskarazko gainidatziekin, korsikarrak, Sergi López katalana bera ere, eta ohartzen gara haiek gehiago sinesten dutela gudan eta gure kulturarengan gure hautetsiek baino.

Nire herri ondoan, turismoak eragiten duen ur zikinen desmasiak garbitzeko 5,6 milioi euroko azpiegitura bat martxan jarri da, baina gure kulturan ekiteko aurreten behar ziren 100.000 euroak erdira murriztuak izan dira. Zergatik ez duten hitza bete? Ez zaigulako errespeturik zor. Ezdeusak gara. Bertako ziminoak. Hizkuntza teknikoak saiatzeko dira gure balizko gabeziak deskribatzen: ez omen gara aski ongi formatuak, ez omen gara estetikoki estandarretan sartzen edo ez omen

dago aski eskaintzarik euskaraz. Ez gara heinean. Kulturan hizkuntza burokratiko-teknikoa erabiltzeak azpi zentzu argi bat dakar: herritarrak profanotzat hartzea. Mintzaira korapilatze-koa lana maskara bat da, eta maskara horren itzalean, herri bat suntsitzen da. Gure herriari bere ondasunak eta subiranotasuna kentzen zaizkio aldi berean. Nik uste dut dena azaldu daitekeela herritar orori, zintzoki ulertzea nahi izanez gero.

1551n, Valladoliden, auzi bat iragan zen Hego Ameriketako biztanleak gizakiak ziren ala ez jakiteko. Artea izan zen frogetariko bat. Artea gizakien zera berezia da, bestela animaliaz mintzo gara, eta esklabotza, desjabetzea eta erailketa bera ziren jokoan orduan. Erronka ekonomiko handiko auzian trenkatu zen ozeanoaz bestaldeko biztanleak gizakiak zirela, beraien artea (arraroa izan arren), arte gisa kontsideratzen ahal zelako. Gure kulturaz eta arteaz mintzo direnean, inplizituki hor kokatzen dute trabesa oraindik gaur egun. Gure gizatasunaz ari dira, gure eskubideez, duintasunaz eta bizitzeko aukereez. Belaunaldi bakoitzak bere egitekoa aurkitu behar badu, ondotik hautu bat dagokio: zeregina bete edo traizioa asumitu.

Horra *Nor Naizen Baneki* ikuskizunaren eta *Harituz* ekimenaren hari gorria. Ez gaude desesperatuak, izatekotan, gure "hats erreak" herri baten existitzeko gogo sumina adierazten du: pronostiko guztien aurka, bizirik iraun dugu. Biba euskal antzerkia. ●

Arozt-Egia



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

Lerro hauek idatzi aitzineko egune-tan gure zazpi herrikideren, gure zazpi lagun, barride, seme eta alaba, militantekide, haurride, ikasle ohi, lan-kide, ezagun, gure Aintzane, gure Gorka, gure Eki, gure Garazi, gure Eñaut, gure Garbiñe, gure Itziren eta, kasu, gainerako 8.000 inguru baztandarron kontrakoa ere baden epaia jaso dugu. Eta horra bada lehen Arozt-Egia: Aroztegi-koak inoiz ez dira zazpi lagun izan, herri oso bat baizik. Herri bat, gaur badakigu, Baztango mugez gaindi ernatuz, lurre-ratuz, ernalduz eta zabalduz joan dena, hazitik erro sakonak eta adar sendoak bota dituen, hatsaldi eta haize ufadetan hedatu dena, hego eta ipar.

Gaur Euskal Herri oso bat elkartasun sartzen da gure bailararen mugetan. Izan lurraren defentsan, izan euskarari arn-sarik ez kentzeko, izan jauntxo dirudunak ez ditugulako maite; izan maite ditugu-lako, maite, gure bazterrak lanbropean zein oskarbi, izan, nola ez ba, feministak garelako. Eta izan, baita ere, horiek de-nek gorputz berberen baitara biltzen eta materia egiten direlako aldiro; pribile-gioak identifikatzen saiatzen dabiltzan nire eta zure gorputzetan, gure gorputz kolektibo menderatuan, intersekzioetan, euskara, gorputza, natura, klasea eta he-rria teilakatu diren toki horretantxe.

Eta Arozt-Egia da ere epaileak dioela gureek ez omen zutela talde kriminalik osatzen, Pernandoren egia. Eta, filmen gi-sara, hiru mailukada jotzen imajinatzen dut (Pernando ez, epailea): kox, kox, kox. Gurek eta gure etorkikoek, alta, beti-be-



MAIDER LETURIAGA

ti-beti garaipen garbi oso total konpletoa ez den zeozer merezi dugu, ez dezagun pentsa justizia honek herria, lurra, jendea eta gainerako piztiak maite dituenik. Eta bertze hiru: txin, txin eta txin.

Berdin, Arozt-Egia da, hasmenta-has-mentatik lurraren defentsaren aldeko borrokaren kriminalizazio kasu eskan-dalagarri bat izan dela hau, ahalkea ere ematen duena bere egiteko modu, larde-ria, harrokeria eta kazikismoan. Arozt-Egia baita herri lurak desjabetu, haritz zaharrak bota eta behiak lekutu dituztela haien bazkatokietatik bertan golf belaiak eta luxuzko hotel-txaletak egiteko. Eta, beraz, gure larruazalaren izerdia dara-matela egin nahi bai baina egin ez diren, egin diren eta egin nahiko lituzketenak ere. Hain zuzen ere, bertan eta haraxeago bizi garen eta zareten izaki eta gizaki ororen izerdia, lur, ur ala aire, azienda buru, mamurru, hegazti ala jende izan, guztiona.

Arozt-Egia da, hala, 8 urteko neskato

baten kartela, makinaren dohakabeko egun horietan obretara eraman eta, kontent, arazoa di-da batean konponduko zuela si-netsita prestatutakoa, hain zen eta ageri-koa bere mezua. Halaxe zioen: "Zuhaitzak mozten badituzue ez da aberatsik izanen, zertaz zuhaitzak gabe denak hilko gara!".

Arozt-Egia da inarrosaldi politiko eta sozial bat, arotzen ola bat, militantziare-na eta irudimenarena. Eta, aldi berean, Arozt-Egia da negozioirik ezean parajeak bortz axola zaiela bere gaurko nagusiei eta, akaso hortaz, bertako giltzaurpean, kixki-kaxka, hamaiketako ederra egin genuela lehengoan mendi itzulixkatik bueltan.

Arozt-Egia dira orain isunak eta sos bilketa, eta helegiteak eta bakerik eza. Nahiz eta, baduten uste, natura, euskara, gorputzak gehi bakea Arozt-Gezurra di-ren gaur, Lekarozko Aroztegi bezalaxe gainerako mendi, hizkuntza eta izakien-tzako ere. Kox, kox, kox eta txin, txin, txin, aberatsak manatu eta epaileak dixit. ●

Ondorioaroa



MIKEL OTERO
DIPUTATUA

Norbait zalantzatan bazebilen, uda honetan Iberiar penintsulan izandako sute erraldoiek berretsi dute krisi ekologikoaren ondorioen aroan bete-betean sartuak gaudela. 2025. urtea amaitzeke, dagoeneko ia Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren azalera osoa bezainbeste erre da (600.000 hektarea inguru). Ez da broma. Ikertzaileen arabera, krisi klimatikoak hogeitaz biderkatu du baso sute erraldoiak izateko aukera. Izan suteak, uholdeak, beroaldiak, lehorteak edo beste edozein fenomeno, larrialdiaren ondorioak sare sozialen bideoetan ikusi orde, etxeko leihotik grabatuko ditugun eguna iristen ari da. Eta horrek larrialdi klimatikoaren bi ardatz nagusiak berrikustea eskatzen du. Arintzea eta egokitzea.

Arintzearen atalean (karbono dioxido isuriaren murrizketa), etxeko lanak ez doaz ondo. Murriztu dugu zerbait, baina besteen lepotik. Erbestean sortu eta sare bitartez aprobeztatzen dugun elektrizitate berriztagarria da, gurean, murrizketaren arrazoi nagusia, menpekotasuna areagotzearen truke. Eztabaida asko eta urrats gutxi. Are, zailtasunen aurrean, badira “botoi” nuklearra sakatzaren alde agertu diren iritzi-emaile jatorrak. Ez diot inori ilusioa kendu nahi, baina hor ez dago soluzio biderik. Denbora izango da poligrafoa.

Baina klima larrialdiari egokitzeaz ere hitz egin behar dugu. Eta serio. Aurtengo suteek Euskal Herria ez dutenez bereziki astindu, inolako zuhurtzarik gabe aritu dira hainbat agintari eta bozeramale (bereziki JELtzaleak, nola ez), hemen larrialdiei aurre egiteko sistema boteretsua dagoela esanez. Amonak esango lukeen moduan, *zakurraren bibolina!* Babes zibileko larrialdietako edozein langilek ondo asko ezagutzen ditu ga-beziak, deskoordinazioak, formakuntza hutsuneak, talde espezializatuen faltak. Zaldibarren izan genuen lagin txiki bat.

Sute handien arriskuei begira, nahikoa da basozainekin hizketalditxo bat izatea hurrengo suteei begira baldintzak okertu direla ulertzeko; baso monolaborantzaren ondorioak, bizileku-baso tartearen estutzea, Pirinioaurreko baso-masaren egoera, abeltzaintza estentsiboarena... adi sortzen ari garen baldintzei.

Beraz, berriztagarrien eztabaida tirabiratsuari gainjarri behar diogu egokitzearen mila erpineko eztabaida. Eta bai, biek ala biek premia dute. Eta gaurko baldintzetatik abiatuz egin behar da, zeren, irtenbide perfektuez eztabaidatzen dugun bitartean, akaso hurrengo muturreko fenomenoak itzulezineko triskantza eragingo baitigu. ●

Zenbatenpean



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Oinei begira ibiltzea arriskutsua izaten da, baina nahiko hala bizi gara. Inguru urruneko oihartzunen batek aztoratzen gaitu noizean behin; gora ez begiratzeak ustekabeko bonbaren bat irenstera ere eraman gaitzake. Ez dago erraza. Hemen tennis partida batean bezala egon behar dugu alde batera eta gero bestera begira. AEB, Txina, Argentina, Errusia, Venezuela, Ukraina. Ez dirudigu bate-re protagonista.

Batzuek-batzuek uste dute, Putin eta Trump Alaskan bildu zirenean, *Tordesillas* bat egin zutela, bakoitzaren armada zer patiotan jolastu jakiteko. AEBek narko ordezkoa topatu dio *terroristari*

hegoaldean duten Amerikan sartzeko, eta narkopresidente bilakatu dira Venezuelakoa, Mexikokoa, Kolonbiakoa... Bonbak baino isilago dabil Txina, eta horri ere aurre egin behar gerraz haragoko industriei eutsiko bazaie, eta Trumpek erabaki du Argentina (aldekorik ez bestela), dolarpean edukitzeko Mileik irabazi behar duela, eta erabaki ahal duela hori.

Bakoitzak badaki zer protagonistaren mende geratzen ari den botere banaketa horretan. NBEn irudikatu zen. Ahoskatu zuten, burujabetza noren kontra. Zaila dago gora begiratzea, hala gelditu naiz baina; oinei so, ez baitaukat argi, guztira, gu noren patioa garen, zertan jolasteko. ●

Ibaitik itsasora



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Urriaren 4an Iruñean egin zen manifa izugarria izan zen. Momentu oro, nire irudipena izan zen hiriko kaleak betetzen genituen pertsonok adin, jatorri eta pentsamolde ezberdinetakoak ginela. Gizateriaren parte izatearen sentimenak desberdintasun guztiak gainditzin zituen aldi horietakoa izan zen.

Euskal aktibistek Palestinaren alde egin duten borrokan, segur aski, bide luze eta nekagarria izan dute mobilizazio hau lortu arte. Agian beranduegi, dagoeneko 70.000 pertsona hil direlako genozidio programatu batean, baina nolabait herri gisa kolektiboki erantzuteko dugun gaitasuna berpiztu egin dute, eta berpizte horrek gizarte bezala duintzen gaituela uste dut.

Gure herriaren historiak erakutsi digu aldaketa sakonak ez direla lortzen inertziaz, baizik eta pertsonen ahaleginaz eta esku-hartze aktiboaz, askotan elkar eragiten duten talde ezberdinetako kide izatearen sentimendua alde batera utzita.

Zorte handia dut, nire lagunaren artean militante amorratuak eta aktibista ne-

Euskal gizartea iratzarri dute; protesta nork deitzen duen inork ez galdetzea eta elkartasuna beste gauza guztien gainetik kokatzea lortu dute

kaezinak daudelako. Egunero ezintasuna, beldurra eta nekea pairatzen dituzte, boterearen eta gizatasunik ezaren alde ilunaren errealitaterik krudelena ezagutzen dutelako.

Agian, ez dute izan aukerarik beren lan nekaezinarekin lortu duten aldaketa ikusteko, baina izugarria izan da. Euskal gizartea iratzarri dute; protesta nork deitzen duen inork ez galdetzea eta elkartasuna beste gauza guztien gainetik kokatzea lortu dute.

Duela egun batzuk hiru emakume aktibista paseatzen ari ziren Gasteizko erdialdeko kaleetan, lepotik zintzilik kartel batzuk zituztela, sarraskitutako haur palestinarren irudiekin. Lasai zihoazen, elkarrekin hizketan; haiekin gurutzatzen ziren ibiltariak kartelei begira zeuden, jakin-mina, zirrara eta konplizitatea erakutsiz. Hannah Arendt-en gogoetaren arabera, pertsonen ekintza politikoa askatasunaren funtsa da. Eta hiru emakume horien ekintza politikoa ausarta iruditu zitzaidan benetan.

Ekintza politikoei dominazio eta botere gehiegikeria sisteman higadura lortzen dute. Urtetan amestu nuen iraultza agian ez da lortuko, baina behetik, izenik gabekoetatik, boterearen erresistentzia eta birkonfigurazio prozesutik, agian, errealitatea aldatuko dugu.

Bitartean, jarrai dezagun gure gobernuari Israeli ezarri ez dizkioten zigorrak eskatzen. Jarrai dezagun kaleetan sionismoarekiko mespretxua erakusten. Egin diezaiegun boikota bere negozioei, eta gogora dezagun Palestinak ibaitik libre izan behar duela itsasoraino. ●

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2025

Lehenengo fasea
Urriak 18, larunbata
IRURITA
17:30ean, Gizarte Bilgunean

www.bertsosarrerak.eus

Amaia Elizagoien Varela
Endika Legarra Nuin
Josu Sanjurjo Alzuri
Julen Zelaia Iriarte
Patxi Castillo Graciarena
Xabat Illarregi Marzol
Gai-jartzailea:
Ainhoa Larretxea Agirre




Laguntzailea



TRANTSIZIOAK

GURE ESKU!



EUSKAL HERRIKO
LABORANTZA GANBARA



EMAITZA EGIN

www.ehlgbai.org

Linguae Vasconum Primitiae

Jalgi hadi mundura... eta hator etxera


Baionako Euskal Museoan aurrenekoz ikusgai dago euskaraz idatzitako lehen liburua, Bernat Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordelen inprimatua 1545ean. Behin behineko erakusketa da, ondoren Frantziako Liburutegi Nazionalera itzuliko baitute. Beraz, goza dezagun kristalaren bestaldean obra aitzindaria izateak sortzen duen zirraraz. Eta, bide batez, galde diezaiozun gure buruari zergatik den ale bakarra, zergatik daroaten bueltan Parisera, zergatik zaigun oraindik hain ezezagun.

URKO APAOLAZA AVILA SABINA HOURCADE

Kosta egiten da sinestea aratxe narruko estalki zahar horren azpian euskararen historiarako inportantzia ordainezina duten karaktereak aurkituko ditugula. Liburuki txikia da aurrean duguna: *in-quarto* formatukoa –horrela deitzen zaio kaiereko papera bi aldiz tolestuta lau orrialde sortzen direlako–, apenas 28 orrialdekoa, hitzaurre bat eta hamabost olerki- edo bertso-sorta ditu. Hori da dena, eta asko da hori, kontuan izanik idatzi zen garaian, XVI. mendearen lehen erdialdean, euskarak ez zuela oraindik biderik esploratu Gutenbergen galaxiara, inprentaren modernitatera.

Linguae Vasconum Primitiae (Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak) izan zen euskaraz inprimaturiko lehen liburua, guk dakigula behintzat, eta bere egile Bernat Etxeparek ere bazekien hori: “Zure eskutik orok ukan dezagun ioia ederra inprimaturik, euskara, oraino izan ez dena...”, irakur daiteke Xabier Amurizak euskara batura ekarritako bertsioan, *Etxepare. Jalgi hadi batura* (Erroteta, 2020) izenburupean argitaratua. “Lehenengo bat izaten da beti, eta betiko. Elementu horrek euskaldun guztiok ukitzen gaitu”, dio Amurizak liburu berean, eta Etxeparek horren kontzientzia argia zuela nabarmendu du.

Urriaren 11tik, ezagutzen den jatorrizko liburuaren ale bakarra ikusgai dago Baionako Euskal Museoan, obra gomitatu gisa, eta hala egongo da 2026ko urtariraren 11ra arte. Joan den astean egin zuten aurkezpena, erakusketaren estreinako egunean, eta han izan ziren Euskal Museoko zuzendari Sabine Cazenave, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larraza, eta Frantziako Liburutegi Nazionaleko liburu bakanen erreserbako zuzendari Jean-Marc Chatelain. “Zuek nik baino hobe dakizue zerk egiten duen baliotsu liburu hau, nik tamalez ez baitut euskarara sarbiderik. Baina uste dut liburu honek euskara hizkuntza literario



Linguae Vasconum Primitiae
Baionako Euskal Museoa
erakusgai den moduan.
Aldeetako batean Mosen
Bernat Etxepareren kantuia
olerkiaren azken zatia dago
ikusgai: "Libertadia nola
vayta gaucetaco hobena..."

gisa baieztatzen duela eta izateko arrazoi guztia zuela", esan zuen Chatelaine bere hitzartzean. Lehen aldia da *Linguae Vasconum Primitiae* Ipar Euskal Herrira ekarri dutena –2011n Gasteizen jarri zuten ikusgai, Eusko Legebiltzarreko erakusketaren aretoan–, eta lehen aldia hainbeste denboraz, gainera.

Erakusketa txikia da, bi objektu osatzen dute: alde batetik Etxepareren 1545eko euskarazko olerki edo bertso bilduma, eta bestetik 1553an okzitaniaraz eta frantsesez idatzitako beste bilduma bat, *Recueil de Coutumes* izenekoak, garaiko ohiturak eta zuzenbidea jasotzen dituenak. "Baionako Mediatekak

prestaturiko liburu hori ere erakustea erabaki dugu inprimatzaile beraren lana delako, Bordeleko [François] Morpainek urte eskas batzuk geroago argitaratua", azaldu digu Euskal Museoko dokumentalista Audrey Farabosek: "Bi liburuak bata bestearen ondoan ezartzeak *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zen garaia hobeki ulertzen laguntzen digu, zer argitaratu zen, zein tokitan, zein hizkuntzatan", gaineratu du.

"*Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara*", irakur daiteke paretetako batean. Ondoan, euskarri xume batean, euskarazko lehen liburua. Bere tamaina txikiak harrituko gaitu akaso, apenas izango

ditu hogen zentimetro luze, baina orrialde zimurtu horiek duten pisu historiko eta sinbolikoa ezin da besterik gabe neurtu.

Behin behinean bada ere, etxera itzuli da euskararen harribitxia, eta ez da erraza izan hori lortzea. Pasa den urtean, museoaren mendeurrenaren karietara, "obra gomitatuen" erakusketa antolatzea pentsatu zuten. Beste erakundeetan zeuden lanak Baionako museoak berak dituenarekin "elkarriketari" jartzea zen helburua, eta hala proposatu zioten Frantziako Liburutegi Nazionalari *Linguae Vasconum Primitiae* maileguan hartzea. "Zoritxarrez, proiektu hori bertan behera utzi behar izan genuen museoaren intsektu



Liburua erakusteko segurtasun sistema berezia atondu behar izan dute, "baina merezi izan du". Argazkian, Audrey Farabos Euskal Museoko dokumentalista aurkezpen egunean azalpenak ematen.

baten infestazioaren kontra tratatu ahal izateko", diosku Farabosek. Baina ideia mantendu dute, eta orain, erakusketaz gain horri loturiko kultur egitarau bat ere antolatu dute.

Liburua mailegatu eta Baionara ekarri ahal izateko, baldintza zorrotzak exijitu dizkiete Paristik: segurtasunerako erakusleio blindatua, alarma, bideo-zaintza sistema, zaintzaileak... Kontserbaziorako, aldiz, tenperatura eta hezetasuna kontrolatzen dituen idulkia eta argitasun oso ahuleko -50 lux baino gutxiagokoa- sistema bat muntatu behar izan dituzte. Gainera, konpainia berezitu bat kontratatatu dute liburua ga-

rraiatzeko: "Abiapuntutik, liburutegi nazionalako arduradun batez lagunduta etorri da Baionaraino, instalazioan baldintza guztiak errespetatzen direla ziurtatzeko", zehaztu du dokumentalistak. Hala ere, Farabosek argitu digu ohikoa dela beste erakundeei maileguak eskatzen zaizkienean ere halako baldintzak bete behar izatea, obraren hauskortasunaren arabera.

Konplexutasun horietatik harago, baina, *Linguae Vasconum Primitiae* moduko altxor bat Baionan izateak duen garrantzia azpimarratu dute Euskal Museoko arduradunek, ez soilik "*unicum*" bat delako, ale bakarra alegia, baizik eta euskal kultu-

rarentzat eta historiarentzat oinarritzkoa izanik ere, idazlearen izena aparte utzita, oraindik askorentzat ezezaguna delako: "Baitaezpadakoa zaigu bisitariek ikus dezaten euskaraz inprimaturiko lehen liburua baino gehiago dela, eta liburuaren inprimatzea eta testuinguruak erakusteko", dio gure solaskideak.

POEMAK ABESTI, ABESTIAK MITO

Liburuak biltzen dituen hamabost olerki sorten artean, euskarari gorazarre egiten dieten *Sautrela* eta *Kontrapas* dira herri-tarron gogoan hobekien iltzatu direnak, batez ere azkeneko hori, Xabier Letek 1960ko hamarkadan abesti moduan lau haizetara zabaldu zuena: "*Garaziko herria benedika dadila / euskarari eman dio behar duen tornua / Euskara jalgi hadi kanpora...*", dio geroztik milaka ahotan errepikatutako ahapaldi ezagunak.

Baina liburuaren olerki gehienak fedeari eta maitasunari buruz ari dira. Ari-maren salbazioaz mintzo zaigu Etxepare, baita amodio konfesa ezinez eta ezkonduen arteko harremanez ere. Amuriza, *Emazten fauore* izeneko poemak harritu du gehien, garaiko ideia misoginoen kontra egin eta gizonak emakumeekiko zuten jarrera gogor kritikatzeko baitu: "Borobilak iruditu zaizkit horko esaldi batzuk, ro-tundoak!", azaldu zion bertsolariak Miel A. Elustondori, liburuaren kari ARGIA-n egindako elkarrizketan.

Aurelia Arkotxa euskaltzain eta idazlea da Etxeparearen lana gehien aztertu duenetako bat, eta bere esanetan alorra, testuingurua, oinarritzkoak dira maitasunezko koplak horien zentzua jakiteko. "Uste dugu ezagutzen dugula, gurea dugu, hain gure, non mito literario bilakatua den aspalditik. Alde batetik ongi, baina bestal-detik mito izate horrek gordetzen dauku beharbada errealtatea", azaldu zuen 2023an Baionako Mediatekan emaniko konferentzia batean.

ETXEPARE ERREALA

Baina nor zen Bernat Etxepare? Liburuaz gutxi badakigu, ez dakigu askoz gehiago egileaz, jaioturtea bera ere ez. Ustez 1480ko hamarkadan sortu zen Garaziko Sarasketa herrian, Etxeparia etxean, eta 1511n Eiheralarreko erretore izendatu zuten, Donibane-Garazitik gertu. *Linguae Vasconum Primitiae*-ko olerki autobiografiko bakarretik egile askok ondorioztatu dute Biarnon giltzapetuta egon zela Nafarroako erregearen aginduz. Bere esanetan, "faltseria" baten ondorioz atzeman zuten: "*Erregeri gaizki saldu naute hoben*

KONTZERTUAK, BISITAK ETA TOPAKETAK, EGITARAU BEREZIAN

Hurrengo aste eta hilabeteetan liburuaren kari egitarau berezia antolatu du Baionako Euskal Museoak. Batetik, bisita gidatuak izango dira **azaroaren 8an, abenduaren 6an eta 20an**, eta **urtarrilaren 3an eta 10ean**, larunbatarekin. Gainera, ikasleak ere hartuko dituzte erakusketan: "Espero dugu bisitariek ez dutela aukera paregabe hau galduko, liburu honen deskubritzera eta mirestera etorri eta hartaz gehiago jakiteko", esan digu erakusketaren arduradun Audrey Farabosek.

Bestetik, **abenduaren 6an** Ibon RG eta Garazi Navasen *Iaquin vahu* emanaldia izango da Biltxokon, eta **abenduaren 19an** Danserie Ensemblek *Bernart Etxepare 1545* kontzertua emango du Santizpirituko elizan.

Topaketak ere antolatu dituzte eta hainbat adituk hartuko dute parte. **Azaroaren 22an** Baionako Herriko Etxean izango dira: Jean-Marc Châtelain (FLN, liburu bakanak), François Pic (Okzitaniaz letren bibliografia), Katixa Dolhare-Zaldunbide (literatura), Gidor Bilbao (klasikoa eta euskal literatura), Sho Hagio (euskara, euskal literatura, itzul-pengintza). Eta **urtarrilaren 8an** Euskal Museoa Philippe Chareyre (historia modernoa) eta Aurelia Arkotxak (euskal filologia) hitz egingo dute.

Berceac oroc ičan dira
Bere goihen gradora
Oray hura iğanenda
Berçe ororen gaynera.

Heufcara

Bascoac oroc preciatzē
Heufcara ez iaquin harrē
Oroc iccassiren dute
Oray cerden heufcara.

Heufcara

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu guciataric.

Heufcara

- Etxeparek euskara goratzen duen *Kontrapas* bertso-sortaren zatia.
- Liburuak apenas neurtzen ditu hogei zentimetro. Garaiko inprimatzaile humanista gehienek egin bezala, karaktere erromatarrez dago idatzia, *littera antiqua* deiturikoan.
- Letra italiko edo etzanik gabe eta puntuazio oso gutxiarekin inprimatu zen, aurrerakuntza horiek geroago etorri ziren, Leizarragaren itzulpenetan.
- Liburuaren estalkiaren atzealdeko zatia. XVI. mendeko aratxe edo txahal larruzko estalki orijinala kontserbatu du, eta horrek informazio oso preziatua eman dezake liburuari ibilbidea jarraitzeko.
- Bi aldeetan Luis Borboi Kondekoaren armarria ageri da, liburuak erosi zuen jabearen ikurra, errege-familiaren leinukoa.
- Urre koloredun lauki eta apaingarriak dauzka.



GALLICA / BNF

gaberik...", dio garaztarrek. Ez ahaztu Fernando II.a Katolikoa nafar erresuma konkistatzeko ahaleginetan zebilen garai gatazkatsuek direla horiek.

Hori da orain arte ezagun genuen apurra. Baina duela urtebete, Danserie Ensemble antzinako musika taldeak argi izpi batzuk jarri zizkion itzalpeari. Talde horretako musikari eta ikerlari Koldo Azkonak hainbat historialariren laguntzaz Nafarroako Artxiboan aurkitutakoaren berri eman zuten, Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldi batean. Besteak beste, dokumentu baten bidez jakin dute Etxeparek apaiztu ondoren seme bat izan zuela, hura ere Bernat izenekoa.

Semea Donibane Garaziko leinu aberats bateko alabarekin ezkontzeko tratua egin zuten, Johana Aranburu 13 urteko neskatilarekin. Baina eztei horiek sestra ekarri zuten: dirudienez, aurretik Baigorriko Mendikoaga familiako kide batekin ezkondu omen zen Aranburu ezkutuan. "Folletoi bat dirudi, eta beti bezala makurrena emakumeari tokatu zitzaion", azaldu zuen Azkonak. Bateko eta besteko interesak medio, prozesu judizial luzea izan zuten bi familiek, eta bitartean, Johana Aranburu bahitu eta gatibu eduki zuten monasterio batean. Ez dirudi kasu honek emaztearen faborez aritu zirenik.

Bere olerki autobiografikotik ondoriozta daiteke Etxepare Biarnon giltzapetuta eduki zutela Nafarroako erregearen aginduz. Dirudienez "faltseria" baten ondorioz atzeman zuten garaztarra

Ikerketan beste hainbat kontu ere argitu ditu Azkonak, adibidez Etxepare ez zela uste bezain beaumontar sutsua, zerga-biltzailea zela, "ez oso popularra beraz", eta garaiko egoera politikora moldatzea egokitu zitzaiola. "*Libertatea nola den gauzetako onena / gatibutzan egotea hala pena gaitzena*", zioen erretoreak bere bizitzaz idatzitako kantan.

INPRENTAREN ARRASTOA

Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta nabarmenagoa da Etxeparek liburuak olerkiak bere esperientzia pertsonaletik idatzi zituela, sotana batek estalitako imajinaziotik baino. Izan ere, Trentoko Kontzilioaren (1545-1563) aurreko urteetan –Kontrarreformaren doktrina katoliko zorrotzagoa ezarri zuena– apaiz batek maitasunaz hain gordin idatzi ahal izatea ez zen guztiz arraroa.

Iraganean idazle batzuek Etxepare hartu izan dute Erdi Aroko idazle berantiar bat balitz bezala, bai erotismoa eta erlijioa nahastu zituelako, bai idazkera "herrikoia" erabili zuelako. Haatik, Joxemiel Bidadorrek aspaldi ukatu zuen halakorik ARGIAko orriotan: "Betiko matraka da hori. Askozaz literarioagoa da Etxepare bat *Hitako Artzapez* bat baino. Askotan sekulako gutxiagotasun konplexua daukagu".

Gure idazleak inprentarekiko duen miresmenak ere, erakusten du Errenazimenduko humanismotik askoz gertuago zegoela. Asmakizun hark iraultza ekarri zuen letren mundura: 1450. urte inguruan Johannes Gutenbergek Alemaniatik zabaldu zuenetik XVI. mendea iristerako, hogei milioi liburu zeuden zirkulazioan Europan barrena –gehienak latinezko inkunablenak–.



Maidier Bedaxagar kantariak Etxepareren liburuko hainbat bertso eta pasarte interpretatu eta erreizitatu zituen Euskal Museoko patio biribilean aurkezpen egunean, besteak beste *Emazten favore* izenekoa: “Bertuteak behar luke gizonetan handiago / emaztetan nik dakusat ongiz ere gehiago...”

Euskal Herrian lehen inprenta Arnao Gillén Brocarrek jarri zuen Iruñean 1489. urtean, baina inprimatzaileak gutxi ziren oraindik eta ez da harritzekoa Etxeparek Bordelera jotzea

Euskal Herrian lehen inprenta Arnao Gillén de Brocar akitaniarrak ezarri zuen Iruñean, 1489. urte inguruan, eta geroago Miguel Egiak beste inprenta bat izan zuen Lizarran. Baina inprimatzaileak gutxi ziren oraindik, eta ez da harritzekoa Etxeparek Bordeleko Morpainengana jo izana *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratzera; horretarako Sarako Bernard Lehet irakaslearen laguntza izan zuen, berak ordaindu zuen edizioa.

Garai hartan latina kanpoan eskolatuak menderatzen zuten soilik, eta hala, latinaren eta beste hizkuntzen arteko diglosia kultural zaharra gainditzeko lehia errenazentistan sartu zuen euskara Eihalarreko erretoreak, intenzio osoz.

ZENBAT PRIMITIAE?

Ez dakigu zenbat ale atera zituzten, baina bakan batzuk izan zirela uste da, eta auskalo, zenbait koplen edukia ikusita, ez da harritzekoa ere ondorengo mendeetan ale denek sutan amaitu izana edo horrelako zerbait. Denek, orain Euskal Museoa ikusgai dugunak izan ezik. Euskarazko beste zenbat liburuk ez ote zuten izan Etxepareren liburuaren patu bera? Koldo Mitxelena hizkuntzalariak argi azaldu zuen Txertoak 1968an argitaraturiko edizioaren hitzaurrean: “Honek ere aditzera emango luke aspaldian sumatzen ari garena: euskaldunok, alegia, ez ditugula soilik ahoz belarrirako poemak-eta galdu; horiez gainera, liburu inprimaturik aski deuseztatu direla bitarte honetan”.

Arkotxaren arabera, *Linguae Vasconum Primitiae*-k XVIII. mendean amaitu bide zuen Parisko Bibliothèque Royalean, egungo Frantziako Liburutegi Nazionalan. Liburuari pista jarraitu diezaiokegu barruko zigiluaren bidez nola orijinala den larruazaleko armariari erreparatuta. Euskal Museoko Audrey Farabosek argitu digu Luis Borboi Kondekoaren armaria dela. Erlijio gerletan buruzagi protestantea izan zen, Joana Albretekoa Nafarroako erreginaren koinata eta Frantziako errege-familiaren leinukoa: “Horregatik da doike liburua errege liburutegiaren bildumetan sartu, eta bali-teke horrek salbatu izana. Azken finean, liburuaren historiari zor zaio gaur egun ale bakarra izatea”.

Bakarra, mitikoa edo unikoa izan, liburu horrekin Etxeparek lortu zuen historiari jalgitzea XXI. menderaino. Duela bostehun urte gure hizkuntzari prestigioa emateko egin ahaleginak, gaur egun mezu indartsua izaten jarraitzen duelako hala-beharrez: “Basko orok preziatzen / euskara ez jakin arren. / Orok ikasiko dute orain Euskara zer den”. ●



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupéry



Sho Hagio

“Kontrapas abestiak zeharo hunkitu ninduen”

Euskalduna eta euskaltzalea da Sho Hagio (Fukuoka, Japonia, 1962), ikasketaz ekonomialaria, Euskararen hizkuntza politika, euskal diasporaren politika eta kultura aniztasunei buruzko irakaslea da Tokioko Atzerriko Ikasketen Unibertsitatean. *Linguae Vasconum Primitiae* japonierara itzulia du, eta azaroaren 22an hitzaldia emango du Baionan.

Hamar urte dira Hiromi Yoshidarekin batera *Linguae Vasconum Primitiae* japonierara itzuli zenuela.

Itzulpena 2014an kaleratu zen Tokioko Heibonsha argitaletxearen eskutik. 1.300 ale inprimatu ziren eta gaur egun oraindik ez dago dena salduta. Japonian 124 milioi biztanle garela kontuan edukita, zabalpena ez da handia izan... Baina ikusten ari naiz Etxepareren izena hamarkada honetan gero eta ezagunagoa dela Japonian. *Linguae Vasconum Primitiae*-k 400 urte behar izan zituen Euskal Herrian onartua izateko eta nire itzulpenak hamaika besiterik ez ditu.

Nondik nora bururatu zitzaizuen euskarazko lehen liburua itzultzea?

1984an Euskal Herria lehen aldiz bisitatu nuenean ezagutu nuen Etxepareren obra. Garai hartan euskara maila apala nuen eta Xabier Leteren *Kontrapas* abestiak zeharo hunkitu ninduen. Unibertsitate ikaslea nintzen eta euskara salbatzeko mugimendu sozialak asko interesatzen zitzaizkidan, ikastola eta euskaltegietan ikertzen aritzen nintzen; abestiaren hitzak mugimendu horren isla ziren... Orduan erabaki nuen obra osoa japonierara itzuliko nuela.

Baina 30 urte behar izan zenituen...

Ez nuen olerkien itzulpena bakarrik egin nahi, haien interpretazioan eztabaidak zeuden eta beharrezko zen ikuspuntu desberdinak adierazteko oharrak jartzea. Analisi linguistikoa Hiromiri eskatu nion eta Ur Apalategi aspaldiko lagunari hitzaurrea egiteko. Etxepare Institutuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskaltzaindiaren laguntza jaso nuen gainera.

Zein zailtasun aurkitu zenituzten itzulpen prozesuan?

Etxeparek euskararen ahoskerari buruzko gida idatzi zuen liburuan, agian espero zuelako irakurleek begiz soilik ez baizik ahoz ere irakurriko zutela. Hori kontuan eduki genuen Hiromik eta biok. Japonierazko lerroaren amaieran errima ipintzea oso zaila da, baina ez genuen etsi, eta ahoz irakurtzeko errima egokia mantentzen saiatu ginen.

Askoren begitan euskara hizkuntza txiki eta bitxia omen; Etxeparek justu kontrakoa aldarrikatu zuen.

Txikia edo bitxia, erlatiboa da, norekin konparatzen dugun. Etxeparek beste hizkuntza “handi” batzuekin konparatu zuen euskara, haiek baino handiago bihurtu zela zioen oinarri argirik gabe, baina harrotasunez.

Hara, japoniarra eta euskalduna?

Askotan egin didaten galdera da, erantzuna grabatu egin beharko dut azkenean. 1982an, hemeretzi urte nituela, Tokioko unibertsitateko campusean iragarki bat aurkitu nuen kasualitatez, euskarazko klase ez-ofizialak ematen zituztela esanez. Suzuko Tamura zen irakaslea, hizkuntzalari japoniarra, gero Euskaltzain urgazle eta ohorezko izendatu zutena. Horrela hasi ginen, *Jalgi Hadi* testuliburua erabilita. 1980ko hamarkadan Iparraldeko AEKn eta Donostiako Ilazki euskaltegian ibili nintzen udako ikastaro trinkoak

egiten, baina gehienbat kalean eta lagun euskaldunen etxeetan nireganatu nuen euskara, pixkanaka, hitz eginez. Esku zabalik hartu ninduzuen eta geroztik ez nauzue bakean uzten!

Tokion euskal etxea sortu zenuen eta hemengo proiektuak ere laguntzen dituzu. Distantzia ez da oztopo hizkuntzari eusteko?

Ados nago esaten denean distantzia geografikoa ez dela oztopo, bereziki IKTekin dauden aurrerapenekin. Nik urtean bi aldiz bisitatu ohi dut Euskal Herria, baina distantzia psikologikoa bai nabari dudala oraindik, bereziki euskararen erabilpenari dagokionez. Hala ere, Euskal Herrian bertan aurki daitezke erabiltzeko zailtasunak edo gogogabetasuna dutenak...

Zer azalduko duzu Baionan?

Ez naiz euskal literaturan aditua eta itzulpenaren esperientzia oinarrituko naiz agian, bere esanahia azaltzeko, baina oraindik ez dut erabaki. Euskal Museora nolako entzuleak etorriko diren ere ez dakit. Pentsatzen ari naiz egin dizkidazun galderetatik abiatzea.

Euskararen etorkizunaz, Etxepare bezain baikor zara?

Egoera soziolinguistikoa hobetuz joan dela iruditzen zait, baina erabilpena ez hainbeste. Oroitzen dut lehen Joxean Artereren aforismoa sarritan aipatzen zenuela (*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik*), eta egia esan, nola baiteko harrotasuna sentitzen nuen, hizkuntza bizirik mantentzearen ardura norberari egozten diolako. Baina gaur egun hizkuntza-eskubideak neurri batean aitortuta daude eta esamolde horren pisua beste modu batean baloratzen hasi naiz.

Etorkizunean? Euskara hizkuntza bizia da, aldatzea da bere izaera, gakoa da zein euskara eta nola erabiliko dugun, eta hori euskal hiztunok erabakiko dugu, gure arteko komunikazioan. ●



LURRAMA

Zazpi lurraldeetako laborantza herrikoia ohoratzeke jaia

Euskal Herriko Laborantza Ganbera elkarteak (EHLG) hogei urte bete zituen urtarrilean. Laborantza herrikoi eta iraunkorra sustatzen dihardute hasieratik gaur arte, eta erreferenteak dira sektorean. Orain, azaroaren 7, 8 eta 9an, Lurrama azokaren 20. edizioa ospatuko du EHLGk Miarritzeko Irati erakustazokan. Dena den, urteurrena izanik atzera begira jarri orde, etorkizunari heldu diote: 'Bihar ere laborari' lema hautatu dute, erreleboaren gaia eta etorkizuneko laborantzaren eta elikaduraren auziak mahai gainean jartzeko. Beste behin, hainbat ertz elkartzeko zubia izan nahi du Lurramak.

 LEIRE ARTOLA ARIN  LURRAMA

Lurramako koordinazioan lau urte daramatza Delia Delanne-k (Miarritze, 1996), eta ARGIAri ziurtatu dio edizio berezia prestatu dutela aurret, besteak beste, lehen aldiz Euskal Herriko zazpi lurraldeetako laborarien elkargune izango delako –gonbidatu berezia izango delako herrialde gisa–, eta nekazariak eurak izango direlako protagonista. “Ez dut ezagutzen Euskal Herri osoko merkaturik egin denik, biziki polita izanen da”. Bisitariak denetik topatuko du hiru egunez: bertako produktuen eta sor-marken azoka, mintzaldiak, haurrentzako txokoa, kabalak, bertako janaria eta edaria dastatzeko aukera, musika eta dantza... Delannek dei egin die herritarrei Lurrama bertatik bertara ezagutzera, horrela ikusi baitaiteke laborantza herrikoia festsonek egiazki eskaintzen duen giroa. ‘Bihar ere laborari’ leloa hautatu dute aurret, EHLGk kezka begiratzen diolako

Euskal Herriko laborantzaren etorkizunari. “Belaunaldien berritzea lehentasun etengabea da laborantza herrikoia alde lan egiten duten EHLG bezalako egiturentzat”, ziurtatu dute. Datuek ere berresten dute etxalde gero eta gutxiago daudela, eta hori iraultzeko lanean ari dira azken urteetan Laborantza Ganberatik; Lurrama hautatu dute gaian sakontzeko gune gisa: “Pentsatzen genuen 20. edizio honetan biziki garrantzitsua zela gazteak eta erreleboaren problematika zentroan ematea”. Helburu bikoitza dute horrekin: laborariak elkarrekin solastatzen jartzea eta elkarrengandik ikastea; eta publiko orokorrari eta instituzioei gaiaren garrantziaz eta larritasunaz ohartaraztea.

“Laborariak baserri munduan hainbat funtzio betetzen dituzte, eta herri aktibitateen seinale dira. Laborantzan, beste arlotan bezala, gazteak izatea ezinbestekoa da, dinamika aitzina eramateko eta

geroa segurtatzeko”, azpimarratu dute antolatzaileek. Inguruko lurraldeen eta Hego Euskal Herriaren egoera makalarekin alderatuta, Lurramatik onartu dute Ipar Euskal Herriko egoera “aski ona” dela, gazte instalazio ugari daudelako: urtero 200-225 instalazio daude, eta horietatik %75ek 40 urte baino gutxiago dituzte. “Haatik, alde on horiek ez dute estali behar laborantza munduaren garapen kezagarria”, zehaztu dute. Honela diote datuek: Ipar Euskal Herrian 2010 eta 2020 artean baserrien %15 desagertu da, eta tarte 1970. urteraino zabalduz gero, etxalde %57 da galdutakoa. Laborarien batez besteko adina ere 50 urte baino gehiagokoa da egun, eta horien erdiak baino gehiagok ez dute baserriaren segida uzteko “aukera argirik” EHLGk kalkulatu duenez. Batez beste, Euskal Herrian, urtean 90 instalazio inguru egiten dira –eteten diren hiru etxalde bakoitzeko, instalazio bat edo bi abiatzen dira–.



Delannek dienez, etxalde galera-
ren eragina uste baino potoloagoa da:
“Lurralde batzuetan badakigu etxalde
anitz izanen direla segidarik gabe, eta
horrek gauza aintz ekarriko ditu. La-
borari gabe herri tipiak ez dira gehiago
bizirik ukanen; aski larria da. Jatekoak
ere ez ditugu gehiago ukanen hemen-
goak, tokikoak”. Beraz, laborantza herri-
koiak segida behar du, eta horretarako,
gazteak erakarri. “Bihar ere laborariak
izateko elkarrekin lan egin behar dugu
jendarte zibil, instituzio publiko eta la-
borantza munduko aktore guziek. Erron-
ka hori betetzeko lege eta ahalak eman
behar dira plantan”, aldarrikatu dute
Lurramako antolakuntzatik.

Hitzaldietan hainbat ikuspegitatik
landuko dute erreleboaren gaia: “Helbu-
rua da belaunaldi guztiak aipatzea, gaz-
teez gain, transmisioa egiten laguntzen
dutenak ere”. Etxaldearen segida familia
barruko kasuetan zein kanpotik datoze-

netan nola egin jorratuko dute. Batik bat
gazteak izango dira hitza hartuko dute-
nak, “erakusteko badirela gazte batzuk
biziki uros direnak laborari izanez”. Zail-
tasunak zailtasun, segida badela uste du
Delannek, eta ELB sindikatuko gazte tal-
dea jarri du adibidetzat, non 40 bat labo-
rari gazte elkartzen diren, etxaldean lan
egitea bizigarria izan dadin borrokatze-
ko, besteren artean.

EUSKAL HERRIA ELKARTZEKO ZUBIA

Lurraman zubi aintz sortzen dira hain-
bat munduren artean; horixe da De-
lannek gehien maite duena laborantza
herrikoia festatik. Izan ere, koordina-
tzaileak azaldu digunez, EHLGren helbu-
rua ere izan da loturak eta harremanak
sustatzea laborari eta kontsumitzaileen
arte, eta Lurramak aukera hori ema-
ten du: ekoizle ugari izaten dira azokan,
euren ekoizpenak saltzen, eta kontsumi-

tzaileek zuzenean ezagutu dezakete eli-
kagai horiek noren eskuetatik datozen.

Miarritzen izanik, Lurrama Iparralde-
ko kostaldearen eta barnealdearen arte-
ko zubia ere bada, Delannek gogorarazi
duenez. Ez da kasualitatea, antolatzaile-
ek ideia hori zuten hastapenetik: bar-
nealdeko laborariak kostaldera gertura-
tu nahi zituzten, bi alde errealitateak
nahasteko. Era berean, euskararen zubia
ere badela zehaztu digu koordinatzaile-
ak, hainbat bisitarik ez baitakite eus-
karaz, baina euskaldunen eta euskararen
presentzia nabarmena denez, hizkuntza-
ra gerturatzeko eta ikastera bultzatzeko
ere balio duela dio.

Aurten, gainera, inoiz baino pisu han-
diagoa izango du zubi-lan horrek. Urte-
roko formulari jarraituz, Lurraman he-
rrialde bat gonbidatu dute, protagonismo
handiagoa izango duena azokan, mintzal-
dietan eta otorduetan. Baina, kanpoko
herrialderen bat gomitatu beharrean



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

“Pentsatzen genuen lurrarekin lan egiten duenari eman behar geniola hitza”

Delia Delanne

Lurramako koordinatzailea



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behea / Donostia
943 005 680 aholku.eus

–Korsika izan zen azkena–, 20. edizioa ospatzeko Euskal Herria bera jarri dute erdigunean: “Bere erroetan finkatua den eta etorkizunera begira den edizio bat izanen da aurtien Lurrama”. Delia Delanne bera konturatu da zazpi lurraldetako laborariak elkartzeko zegoen beharraz, prestaketa lanetan ikusi baitu ez dagoe la Euskal Herri mailako egiturarik, eta bakoitzak bere aldetik jarduten duela, aparteko antolaketarik gabe.

Aurreko edizioetan ez du halako esperientziarik izan, oro har, herrialde bakoitzeko koordinatzaile bakarrarekin antolatzen zuelako Lurrama, baina aurtien, Euskal Herriko lurralde bakoitzarekin banan-banan koordinatu behar izan du: “Nik maitatu dut hori egitea, biziki aberatsa atzeman dut”. Aberatsa bada, hiru klimako herrialdeak askotariko biodibertsitatea eta laborantza heterogeneoa eskaintzen dituelako, baina Euskal Herriko banaketaren eta egoera politikoaren erakusgarri ere bada: hiru administrazio pean eta laborariak antolakunde txikietan bilduta, sektorea indartzea ere zailagoa da, halabeharrez. “Laborantza gaitan behintzat, ikusi dugu Euskal Herria banatuta dagoela. Ene ustez sortuko da zerbait Lurrama honetan; harremanak-eta, segur, baina beharbada bada denen artean zerbait gehiago egiteko gunea”.



GAZAMA ETA GAZAITA: GAZTE, EUSKALDUN ETA LABORARI

20. urteurreneko beste berezitasun bat da “laborariak ohorean” jarri nahi izan dituztela, horregatik, Lurraman Euskal Herriko ordezkari izateko hautatu dituzte Elena Aguerre eta Iñaki Intxausti nekazariak. Gazama eta gazaita figurak beteko dituzte, alegia, jaialdiko amabixia eta aitabixia izango dira. Orain arte politikari edo akademikoek bete izan dute paper hori, baina aldatzea erabaki dutela azaldu du Delannek: “Pentsatzen genuen lurrarekin lan egiten duenari eman behar geniola hitza, eta biziki kontent gara, zeren eta haien lekukotasunak izanen ditugu”.

Hain zuzen, Aguerrek hamarkada bat baino gehiago darama baratzezaintza biologikoan, eta egun Baigorri (Nafarroa Beherea) dauka jateko sagarren ekoizpena. Intxaustik, ordea, Zeraingo (Gipuzkoa) Mendarte baserrian dauka proiektua, eta duela hamar urtetik ari da nekazaritza ekologikoan hori ere, batik batik baratzezaintza eta frutagintzan, baina baita behiekin ere. Bikote aproposa hautatu dutela dio Delannek: “Gizon eta emazte, Hegoalde eta Iparralde, gazteak, euskaldunak... eta baratzezaintzari garrantzia handiagoa eman nahi genionez aurtien, bi hauek ere horretan aritzea ontsa da”. Azpimarratuko dute susten-



gu handiagoa eman behar zaiela baratze-zainei, eta laborantzaren barruan duen pisua handitu behar dela; landare gune bat prestatu dute mezu hau zabaltzeko: "Plater batean haragia izan behar da, bai, eta kanpoko hazkuntza biziki garrantzitsua da Euskal Herrian, baina baratzezainen aldea sustengatu behar da". Betiere, laborantza herrikoa eta solidarioa dute erdigunean, laborari eta etxalde ugari-ekin, askotariko uzta eta kalitatezko elikadura lortzea ahalbidetzen duena: "Lurramak ez du bat egiten eredu industrialarekin. produktibismoa helburu duten etxalde handiek makineria anitz baliatzeaz gain kimika erabiltzen dute lurretan, eta gainera laborari kopuru ttipi batek lur anitz eskuratzen ditu".

MERKATU NAZIONALA, BERTAKO EKOIZPENekin

Euskal Herria gonbidatu berezia izateak eragingo du merkatu funtzionamendu osoa aldatzea; probintziaka antolatuko dute, lehen aldiz, orain arte Ipar Euskal Herriko ekoizleak izaten baitziren nagusi, eta erdiko postuetan herrialde gonbidatua. Irati erakustazokako areto handian kokatzen da laborarien merkatua, U forman, eta erdian beste lerro batekin. Aurten, inguru osoa beteko dute zazpi lurraldeetako laborariak, eta erdian kokatuko dira Euskal Herri osoko sor-mar-

ka edo jatorri deiturak. "Uste dut Euskal herriko merkatu gutxi izan dela, nik ez dut sekulan entzun holako gauzak izan direnik, eta uste dut biziki polita izanen dela", gogotsu mintzatu da Delanne.

Sor-markei dagokienez, merkatua baliatu nahi dute Iparraldeko eta Hegoaldeko jatorri deiturak elkar ezagutu daitezen, eta haien funtzioa ezagutu dadin: "Laborantza herrikoa defendatzeko sor-markak biziki garrantzitsuak dira. Zeren eta erakusten dute zein bide hartzen ahal den kalitatezko produktu bat ukaiteko", dio Delannek. Ipar Euskal Herrian jada erreferentzialtasun handia duten lau jatorri deiturak izango dira – Kintoa euskal xerria, Ezpeletako piperra, Ossau-Iraty, Irulegiko arnoa –, baina koordinatzaileak aurreratu digunez, Hegoaldekoek ere presentzia izango dute Lurrama honetan.

Bisitariei gehiago interesatuko zaiona da bertako eta kalitatezko produktu horiek erosteko ez ezik dastatzeko aukera ere izango dela hiru egunez. Besteak beste, arno ostatuan izango dira Euskal Herriko txakolina, sagardoa eta arnoa; apairu edo otorduak ere bertako produktuekin osatuko dituzte; eta sor-markak erabiliz plater berezi bat prestatuko dute. Larunbatean zikiro jana izango da 800 bat lagunentzat, musika eta kantuz girotuta: "Besta giroaz gain, biziki ontsa

jateko tokia da", ziurtatu du Delannek. Igandean, sukaldari apairua izango da, eta hamasei profesional inguruk menu berezia prestatuko dute, "zinez kalitatezkoa". Janari eta edariaz gozatzeaz gain, musika, txarangak eta animazioa uneoro izango da aurten ere, eta Delannek aurreratu duenez, ostiralean Belako talde mungiarren kontzertuak berotuko du gaua, 03:00ak arte luzatuko dena beste kontzertu batekin.

Heldu eta gazteak Miarritzeko festara joatera animatzeaz gain, gurasoak ere deitu ditu esperientzia ezagutzera, haurrei zuzendutako ekintzak ere egongo baitira asteburu osoan. Gainera, azokaren atzealdean kabalak daudela gogorarazi du, gazte eta haurrak bereziki erakartzen dituen gunea, bisitari askorentzat ez baita ohikoa ardi edo behiak egunerokoan ikustea, Delannek dioenez. Koordinatzailea gogoz da Lurramaren 20. edizioa ospatzeko, bertan izango diren 1.000 laguntzailearen babesean eta giro goxoan. Mintzaldietako hausnarketez gain, eta etorkizuneko beharren inguruan pentsatzeaz gain, asteburua baliatuko dute jai giroan ospatzeko eta laborarien jarduna ohoratzeke, zazpi lurraldeak baturik. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

Erreleboari buruz hausnartzeko mintzaldiak



EUSKAL HERRIAN LABORARI PLANTATU: ERREALTATE EZBERDINAK

AZAROAK 7, 17:00ETAN

Asteburuari ekiteko, Euskal Herriko zazpi lurraldetako laborari bana arituko dira hizketan lehen hitzaldi honean. Delia Delannek aurreratu digunez, garrantzitsua izango da Ipar eta Hego Euskal Herriko laborarien lekukotasun ezberdinak konpartitzea, norberak bere prozesu eta bidea kontatzea, "bakoitzak baduelako beste aldetik zeozer ikasteko". Antolatzaileak ziur dira nekazari eta abeltzain lanetan hasteko erabiltzen diren askotariko metodo eta bizitako esperientziak partekatzeak lagundu dezakeela laborari belaunaldiak "berrindartzen".

SOR-MARKAK, EUSKAL HERRIAN LABORARIEN IRAUNARAZTEKO BERME BAT

AZAROAK 7, 17:00ETAN

Sor-marka edo jatorri deitura babestuek ere protagonismoa izango dute aurten. Lurramatik gogorarazi dute etxalde txikiak babesteko bidea direla: "Ekonomikoki ahulenak direnei kolektiboki halako ospe eta babes juridiko handi batera heltzeko ahala ematen diete". Izan ere, kalitatezko ezaugarri batzuk bermatzen dituzte jatorri deiturek, eta denentzat baldintza komunak daude. Sor-marken erronkak ere izango dituzte mintzagai: "Egoera klimatiko aldakor batean, baldintzen bildumak nola egoitu behar dira haien iraunkortasuna segurtatzeko?".

ELIKADURAREN ERRONKA EUSKAL HERRIAN

AZAROAK 8, 11:00ETAN

Lurraman gogoraraziko dute laborariek lan egiten dutela herritar guztion elikadura osasuntsua bermatzeko, besteren artean. Delannek ziurtatu duenez, hitzaldi hauek gero eta gazte eta guraso gehiagoren interesa pizten dute, izan ere, uste du kontzientzia hartzea dagoela jaten duguna osasuntsua eta bertakoa izatearen gainean: "Zinez begiratzen badugu zer den erosten duguna supermerkatuetan, haurrendako ere, beldurgarria izan ahal da". EHLGtik diote landare ekoizpena handitu behar dela Euskal Herrian, egun abere hazkuntzan gehiegi zentratuta baitago: "Ekoizpenak dibertsifikatzea ezinbestekoa da, laborantza osagarri,



autonomo eta erresilienteagoa eraikitzeko". Elikadura sistemak lurraldeko beharrei erantzun behar diela argi dute, eta laborantza "koherente eta iraunkorra" bultzatzeko bideei buruz mintzatu-ko dira: "Engaiamendu politiko sendoa eskatzen du, landare ekoizpen garapenaren aldeko inizatibak laguntzeko, ezinbestekoak baitira tokiko elikadura sistemaren orekarentzat eta Euskal Herriaren burujabetzarentzat".

LURRA, LABORARIEN LAN TRESNA **AZAROAK 8, 15:00ETAN**

Erreleboaren problematikari estuki lotuta, lurraren sarbideari buruz hitz egingo dute mintzaldi honetan: "Higiezinen espekulazioak laborantza lurren beharretan diren laborariak trabatzen ditu, eta usu etxalde handitzeak abantailatu". Horren aurrean antolatu diren eragileak aurkeztuko dituzte: Ipar Euskal Herrian Lurzaindia eta Safer-a lurrekin egiten ari diren lana azalduko dute, eta Hegoaldeko kasuan Amillubiko proiektua azaldu-

ko dute, lurra ondasun kolektibo gisa eskuratzeko aukera. "Laborantza praktika suntsitzaileengandik jorratua izan ondian, lurrak bere zentzua berreskuratzen du gaur egun agroekologiari esker. Laborantzaren oinarria da eta izanen da".

NOLA IKASI LABORARI **BILAKATZEN?**

AZAROAK 8, 15:00ETAN

Historikoki laborari izatea belaunaldiz belaunaldi transmititu den arren, kanpotik edo hiritik datozen gero eta gazte gehiago daudela baieztatu du Delannek –Euskal Herrian instalatu nahi dutenen %20 inguru dira–; beraz, horiek ez dute etxean ikasi laborari izaten, eta beste erronka batzuk dituzte. "Haien proiektuen arrakasta, lurraldean integartzeko eskaintzen diegun gaitasunaren araberakoa da", esan dute Lurramako kideek. Laborariei gogoraziko diete euren zeregina dela haiei ongi etorria egitea eta bidean behar duten laguntza eskaintzea, elkartasunetik. Trebatu tresna azalduko

dute, etxaldea eta lurrak ahalbidetzen dituen eta formakuntza ematen duen tresna, EHLG eta Lurzaindia parte direna.

LABORARIEN ONGIZATEA **AZAROAK 8, 17:00ETAN**

Mintzaldien zikloa aho zapore onarekin amaitzeko, lanbide horretan baldintza duinetan bizi diren laborarien esperientziak ere izango dira. Betiere, erreleboari lotuta, oroitu behar da datozen bost urteetan laborarien erdiak erretretat hartuko duela, eta belaunaldi berriak erakartzeko asmatu beharko dela sektoreko baldintzak egokitzen egungo beharretara: "Lanbideak erakargarriagoa izan behar du", argi dute Lurraman. Horrelako adibide batzuk ezagutarazi nahi dituzte, eta aterabide teknikoei buruz edota antolakuntzari buru hitz egin: elkar laguntza, ordezkatzeko zerbitzua, langile baten enplegatze kolektiboa, eta abar. Laborariek elikadura katean ez ezik kulturen eta lurraldean duten pisua baloratu dadin nahi dute Lurraman ere. ●

“Ongietorriek balio dute militante politikoek urte luzez eginiko esfortzua aitortzeko”



Euskal preso politikoei eginiko ongietorrien auzia pil-pilean egondaudan. Auziakirekitaditu Espainiako Auzitegi Nazionalak. Horietako bat da Ibai Aginagaren ongietorria, espetxean ia hogei urte igaro ostean 2022ko martxoan Berangon (Bizkaia) egin zioten harreragatik. Ongietorri horretan parte hartzeagatik hemezortzi herritarrek deklaratu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean. Azkenean, “terrorismoa goratzea” egotzita, fiskaltzak ondorengo zigorra eskatu du hamaseirentzat: 40 urteko kartzela zigorak, 190 urteko inhabilitazioak eta 80.000 euro inguru isunetan. Kasua ezagutarazteko eta auzipetuei babesa adierazteko, Berangokoekin Elkartasun Komitea sortu dute. Komite horretako kide diren Gabi Basañezekin eta Irantzu Maguregirekin mintzatu da ARGIA.

 ENEKO IMAZ

Zergatik prozesatu ditu hamasei pertsona Espainiako Auzitegi Nazionalak?

Irantzu Maguregi: 2022ko martxoan Berangoko preso politiko ohi Ibai Aginaga kartzelatik irten zen 19 urteren ostean. Bera ongietorri bat jasotzeko prest zegoen, baita herria hori egiteko ere. Auzientzia Nazionalak saiakera egin zuen ongietorri hori legez kanpo ezartzeko; azkenean, ordea, ez zuten lortu eta baimenduta zegoen. Ongietorria egin eta hiru egunera, Kandaruk kultur elkarteak hiru kide deitu zituzten Auzitegi Nazionalera deklaratzera; bi aste geroago, berriz, hamabost pertsona gehiago. Azkenean horietatik hamasei prozesatu dituzte.

Nahiz eta ongietorria baimenduta egon, terrorismoaren goratzea egin zela leporatu diete auzipetuei. Pulsu bat dago Auzitegi Nazionalean ongietorriak oztopatzeko, guztira bost saiakera egon baitira hori lortzeko Espainiako Kongresuan.

Zein eragin du auzi honek ongietorrien zilegitasunean?

Gabi Basañez: Guk biok ongietorri ugaritan parte hartu izan dugu gure eskualdean, eta militante politikoek urte luzez eginiko esfortzuen errekonozimendu edo opari gisa ulertzen ditugu. Auzitegi Nazionaletik eta Espainiako Estatutik horiek egitea galarazi nahi dute, euren asmoa eus kal preso politikoak inongo

babesik ez duten pertsona gisa irudikatzea baita, zorakeriak egin izan baliatuzte bezala. Hain zuzen, ongietorriek aurkakoa erakusteko balio dute. Preso politikoari kutsu politikoa kentzea da euren asmoa, hau da, preso arrunt gisa azaleratzea.

Ongietorrien inguruko epaiketa batean, Sortuko sei kidek fiskaltzarekin akordioa erdietsi zuten espetxe zigorrak saihesteko. Zein iritzi duzue horren inguruan?

Maguregi: Epaiketa horretan heldu zen akordioa ez da batere onuragarria Euskal Herriarentzat eta gizartearentzat. Gainera, aurrekaria ezar dezake ongietorriekin loturiko hurrengo auzietan, euren aitortu baitute militante politiko gisa egindakoak gaizki daudela, ongietorrien aurka egiteaz eta gehiagotan ez dutela parte hartuko esateaz gain. Ez dugu esaten beharrezkoa denik ongietorriak egitea kartzelatik irteten diren militante politiko guztiei, baina bai hala eskatzen dutenei, ez daitezen kartzelatik burumakur irten.

Basañez: Ulertzen dugu auzi hori ezker abertzaleak azken urteetan hartu duen logika okerrarekin bat datorrela, ongietorriak berriro egin ez daitezen ahaleginduko direla adierazi baitute. Ongietorriak adierazpen askatasunerako gune gisa ulertzen ditugu, preso politikoak eta herriak hala egin nahi dutenean. Ibai Aginagari eginikoaren kasuan, hainbat preso irten eta ongietorriak egin ez zitzaizkien une batean izan zen, eta Berangoko frontoia bete egin zen: 700 pertsona inguru bildu ginen, eta horrek erakusten du, gogoia dagoe-

nean, adierazpen askatasuna gailentzen diren guneak direla ongietorriak. Beraz, Sortuko auzipetuek eginiko adierazpenek kalte egiten diete Berangoko ongietorriaren harira auzipetutakoei.

Maguregi: Ibairen ongietorriaren antolaketan murgilduta genbiltzala, Sortu oraindik gertatu ez zen ongietorri baten aurka agertu zen lehenengo aldia izan zela. Ordura arte ez zirela egin behar adierazi zuten, baina Berangoko herritarrek Ibairi bat egin nahi ziotela jakin zutenean, horren aurka argi agertu ziren.

Sortuk aukeratu duen ibilbidea da. Horrek kalte egiten dio Euskal Herriaren alde borrokatu den eta oraindik borrokan dagoen mugimenduari.

PPk Espainiako Senatuan proposatu du ongietorriak debekatzea eta preso politikoei euren ekintzengatik barkamena eskatzea. Zer bilatu nahi dute horrekin?

Basañez: PP dagoeneko bost aldiz saiatu da hori lortzen, eta horrekin desaktibatu nahi du azken 50 urteetan independentziaren eta sozialismoaren alde militante politiko ugarik eta gure herriaren zati garrantzitsu batek eginiko borroka. Barkamena eskatuz gero, egin-dakoa gaizki dagoela aditzera ematen da eta ez da kokatzen borroka prozesu baten barruan. Ikusten da leku askotatik nahia dagoela ongietorri gehiago ez egiteko, gaur egun marko politiko eta juridikoan legezkoa izan arren.

Guk defendatzen dugu espazio hori oraindik ere erabili behar dela, desagertu ez dadin, legez kanpotzat jotzeko aukera handiak baitaude. Militante politikoei urte luzez eginiko esfortzua aitortzeko eta kartzelan bizitako atsekabea gainditzeko laguntzeko balio dute ongietorriak. Horrez gain, borroka horretan eurak bakarrik egon ez direla erakusteko ere balio dute: eurekin batera herri oso bat egon dela, hain zuzen.

Zein helbururekin sortu duzue Berangokoekin Elkartasun Komitea?

Maguregi: Auzitegi Nazionalak hama sei auzipetuen aurkako prozesua abiatu zuenean, konturatu ginen gure inguruko jendea ez zela jakitun kasuaren larritasunaz: guztira 40 urteko kartzela zigorrak eskatzen dizkiete, 190 urteko inhabilitazioak eta 80.000 euro inguru isunetan. Halere, jendeak ez du ezagutzen kasua, ez baita agertu irrati, egunkari edo hedabide ugaritan.



Berangokoekin Elkartasun Komiteko Gabi Basañez eta Irantzu Maguregi.



Euskal presoaren alde Berangon egindako ekimen bat. Hiruka.

Beraz, komiteak duen helburu nagusietako bat kasua ezagutaraztea da: finean, jendeak auzipetuei babes emozionala eta politikoa eman ahal izateko. Beste helburuetako bat ongietorriak egiteko eskubidearen aldarria egitea da, eta horregatik gabiltza komiteari kutsu nazionala ematen.

Basañez: Lehen fase batean kasua herrian ezagutarazi nahi genuen, eta uste dugu lortu dugula. Bigarren fase batean, berriz, Euskal Herrira zabaldu nahi dugu, gehienbat epaiketaren egunerako ahalik eta indar gehien batzeko: orokorrean, ongietorrien alde eta, zehazki, Berangoko auzipetuen alde.

Epaiketaren egunera begira, zein bide-orri izango du komiteak

hurrengo asteetan?

Maguregi: Azken asteetan Euskal Herriko hainbat talderekin biltzen ari gara, gure proposamenak helarazteko eta bakoitzak bere herrian auziaren berri eman dezan proposatzeko. Hitzaldiak ere egin dira eta egingo dira. Uste dugu epaiketaren dataren berri hemendik gutxira izango dugula, eta une horretan prentsaurrekoa eta manifestazio nazionala antolatuko ditugu.

Basañez: Auzipetuen eta ekimenaren berri izan nahi duenak sare sozialetan ditugun kontuak miatu ditzake. Azpimarratu nahi dugu berebiziko garrantzi politikoa duela Euskal Herriaren alde egin duten militante politikoei goratzeak, eta horrekin jarraitzeko apustuarekin bat egiten dugula. ●

LURRAMA AZOKA



Aurtengo Lurraman, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak eta ARGIAk elkarlan iraunkorrerako pausoak eman dituzte.

Euskal Herriko erreferenteekin dantzan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskal Herrian erreferentea da. Hurrengo ekitaldia sekulakoa izango dela espero da. Ospatzeko zerbait. Eta ARGIA bertan izango da, bertan egon nahi du, lehen lerroan. Ez, irakurle, ez naiz BECeko Mitoaroaz ari, Miarritzeko Lurramaz baizik! 20. edizio honetan ARGIAk EHLG Euskal Herriko Laborantza Ganbararekin adostu elkarlanak nobedadeak dakartza eta kontatu egin nahi dizkizugu.


Bizi Baratzea lantaldeak aspaldian zuen EHLGrekin, lurrari lotutako erreferentea, zerbait egiteko gogo. ARGIA egona da, bere postua jarrita, beste urte batzuetan Lurraman, baina zerbait iraunkorragoa hasteko nahia bazetorren lehenagotik. Aurtengoa, esan bezala, edizio berezia izango da eta urtero izendatzen duten herri gonbidatua, 2025 honetan Euskal Herria izango da. Bertako laborari eta herri mugimenduei eskainiko zaie

leku guztia, nazio mailako azoka egingo da eta zazpi lurraldeetako herritarrak bertaratzeko nahi horretan jarri da EHLG harremanetan ARGIArekin. *Feeling*-a bazegoen lehendik eta lehen bileran sortu da txispa. *Match*.

Komunikabideak bere lana egingo du. Komunikatu. Sustapena egin. Publizitate bidez, orrialde batzuk lehenago irakur dezakezun gai nagusia bezalakoak eskainiz, ekitaldia finantzatzeko martxan jarri den kanpainari ahotsa emanez... Eta azokan buru-belarri parte hartuz. Indar guztiak bertan jarriz, talde modura, Durangon bezala, denak egon daitezten bertan, denek bizi dezaten ekitaldia barrutik. *Egonarria* saioa bertan grabatuko da Kanalduderekin batera eta mintzatuko dira Lurramako hitzaldiak eskainiko dituztenekin.

Aldi berean, EHLGren *Izar Lorea* aldizkariarekin batera banatuko da *Bizi*

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

Hizkuntzekiko eta euskal kulturarekiko maitasunagatik, euskara ikasten ari naiz eta ARGIAren edukiekin hobetu nahi dut

Madrildik Nemanjak

“ ”


Euskararen erabilera sustatzearren eta atzerritik etxeko hurbiltasuna sentitzearren Bartzelonatik Endiak

Baratzea Orria eta hala, ARGIA helduko da Iparraldeko laborarien etxe askotara, komunitatea zabalduz.

EZ DUZU LABORARIA IZAN BEHAR LURRAMARA JOATEKO

Batez ere Hegoaldeko publikoari: Miarritzeko Irati erakustazokara gerturatzen dena ez da traktore bat erosita itzuliko etxera. Ez duzu nekazari edo abeltzain izan beharrik joateko. Denetarik egongo da gozatzeko, hitzaldi interesgarrietatik hasi –euskaraz, nagusiki, eta itzulpen zerbitzua beti bermatuta– eta oraindik esan ezin diren baina oso ezagunak diren taldeen kontzertuetaraino. Azoka etengabea izango da, sor-markei leku berezia eskainiko zaie, bertako jan-edanak dastatzeko aukera, umeen txokoa. De-ne-tik.

Azaroaren 7tik 9ra, Miarritzeko Irati erakustazokan. Bertan ikusiko dugu elkar? ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Maiak: uste baino gehiago eta lotuago

Yucatan penintsula, X. mende hasiera. Maien zibilizazioaren gain-behera hasi zen, ziurrenik klimaldaketak bultzatuta, eta, hala, zibilizazio haren urrezko aroa, Aro Klasikoa, amaitu zen. Aurreko hiru mendetan maien populazioak gailurra jo zuela uste izan dute adituek: 10-11 milioi biztanle. Baina, berriki, ikerlan batek kopurua askoz handiagoa zela ondorioztatu du: gutxienez 16 milioi.

Azken urteetan LiDAR teknologiak –laser bidez objektuak antzemateko eta neurtzeko sistemak– sekulako bultzada eragin du arkeologian, bereziki landarediak estalitako eremuetan. Yucatan penintsulan, maien hiri nagusiak (Tikal, Palenque, Chichen Itza...) ondo dokumentatuak egon arren, oihan tropikalak kokaleku txikiagoak ikertzea oztopatu du. Orain, Francisco Estrada-Belli arkeologoa buru duen lantaldeak 95.000 kilometro koadroko eremua kartografiatu ahal izan du, eta emaitza *Journal of Archaeological Science Reports* aldizkarian argitaratu. Aurrez, 2018an, adituek maien zibilizazioaren populazio-estimazio bat egin zuten, baina, esan bezala, ikerlan berriak kopurua gutxienez %45 handiagoa zela ondorioztatu du, arkeologoen halako igoera espero ez zuten arren.

Baina, populazio-dentsitateaz harago, ikerlariak beste ondorio batzuk atera dituzte. Orain arte ikusi gabeko nekazaritza kokaleku asko aurkitu dituzte,



INAH

eta gune horiek ez zeuden uste bezain isolatuak. Kokaleku gehienak eliteek kontrolatutako guneeetatik gertu zeuden, gehienez ere 5 kilometroko distantzian. Horrek esan nahi du landaguneko biztanle gehienek gune nagusietako jarduera ekonomiko, politiko eta sozialetan parte hartzeko aukera zutela.

Estrada-Bellik dioenez, “froga sendoak ditugu esateko maien gizartea oso egituratuta zegoela, hirietan nahiz nekazaritza

guneetan, eta orain arte uste baino askoz aurreratuagoa zegoela baliabideei eta antolaketa sozialari dagokionez”.

Maien zibilizazioa estatu-hiri independenteen multzotzat jo da luzaroan eta ikerlan honek erabat irauli du irudi hori. Eta LiDAR sistemak maien zibilizazioaren aro klasikoa berdimentsionatu duen moduan, beste leku eta garai askorekiko dugun begirada zorrozten lagundu dezake etorkizunean. ●



M. GUAGNIN ET AL.

12.000 urteko bide-seinaleak

Nafudeko basamortuan (Saudi Arabia) duela 12.800-11.400 urteko 176 grabatu topatu dituzte, gehienak tamaina errealeko ganbeluenak. Grabatu horiek gainera ez daude, ohi bezala, leizeetan edo leku ezkutuetan, agerian baizik.

Green Arabia Projecteko adituen ustez, arte-adierazpen hutsaz harago,

grabatuak bide-seinale moduan erabili zituzten, eta, zehazki, ura non topatu zitekeen esaten zioten bidaiariari. Eta Ceri Shipton arkeologoaren hitzetan, biziraupenerako tresna izateaz gain, grabatu horien atzean “lurralde eskubideak eta belaunaldien arteko memoria ere badaude”. ●

SUTEEK KISKALIKO GAITUZTE LANDA EREMUA HIRITARTZEN JARRAITUZ GERO



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

2022an egun gutxi batzuetan 15.000 hektarea kiskali ziren Nafarroan. 2024an, eskarmentu haren ondotik, eta Andia mankomunitatearen eskutik, izan genuen lehen aldiz “artalde suhiltzaileen” berri. Zurbeltz Test Gunearen baitan martxan jarritako proiektua.

Aurtengo uda beroa izan da, abuztuan zehar Espainiako Estatuan kiskali diren 400.000 hektareek baieztatzen dutenez. Euskal Herrian ere izan ditugu suteak, 622 hektarea erre dira abuztuan Eneritz eta Zarrakastelun, eta beste 60 hektarea berriki Urraulgoitin.

Ohikoa da suteak ugaritzearen arrazoiaren artean aldaketa klimatikoa aurkitzea; tenperatura altuek, hezetasun gutxi eta haizete indartsuek, idorte luzeek lagunduta, suteak hedatzeko baldintza egokiak sortzen dituzte. Suteei aurre egiteko giza baliabide eta azpiegitura faltak ere askotan izan dira aipatuak. Urtez urte gero eta entzutetsuagoak diren suteen hedatzean noski garrantzia izango dutela antzeko arrazoiek, baina ez ote dute landako herrien despopulazioak eta abeltzaintza estentsiboaren desagerpenak eraginik izan?

Ia gaur arte, gure mendiak eta basoak modu aktiboan maneiatuak izan dira eta natur baliabideekiko dependentzia estua izanik, epe luzeko oreka bilatu da natura eta gure jardunaren artean. Egun, ordea, gizakiaren jarduerak oso urrun daude mendiaren dinamiketatik, eta natur baliabideak ustiatuta, ezagupenik gabe, epe motzeko etekin ekonomikoari begiratzen zaio. Urruti daude garai bateko artzantza, ehiza edo sutarako egur bilketa.

Bestalde, azken urteetan landa eremuan ezarri diren politikek gero eta zailago egin dute giza neurriko nekazal jarduerak mantentzea, eskala txikiak izanagatik ere agroindustriaren norma-

tiba betetzea eskatzen zaielako. Gero eta burokrazia gehiago, gero eta estuago... guztiz desagertu arte! Landa eremua hiri-ikuspegitik gobernatua izatearen ondorio zuzenak dira. Aldi berean, abeltzaintza intentsiboa Hego Globaletik inportatzen den pentsuan oinarritzen da, inpaktuak externalizatzen dira, baina nekazal jarduerak ez du inolako harremanik ingurune hurbilarekin, basoak ez dira ez erabiltzen, ezta zaintzen ere.

Badirudi landa eremua, museo baten antzera, zenbat eta garbiagoa, inongo esku-hartzerik gabe, orduan eta jasangarriagoa dela, iraunkorragoa, berdeagoa. Agian horrela izango da “turismo jasangarria” helburu duen ingurune batean, baina ez suteak prebenitzeko basoen kudeaketa aktiboa egitea behar den lekuetan.

Horrelaxe galdu da landa eremuari lotutako bizimodu bat, eta bizimodu horri lotutako jakintza guztia ere bai. Aspaldian gailendu da teknologia berria, digitalizazioa, landa eremuko biztanleek belau-naldiz belaunaldi ondu duten jakintza

praktikoaren aldean. Betidanik jo ditugu tontotzat baserritarrak, ezjakintzat, beraien egiteko moduak suteak prebenitzeko ezinbesteko pieza direla erakutsi diguten arte.

Behin landa eremuko bizimodua desagertzen utzi dugunean, Test Guneak edota baso-larretzea bezalako moneiua sustatzeko proiektuak aktibatu behar izan ditugu. Aldaketa klimatikoaren garaiotan, suteak bezalako hondamendi naturalen aurrean, garapenaren izenean galdutakoak berreskuratzeko saiakerak dira.

Berandu baino lehen jarri dezagun arreta gure elikadura sisteman eta egin dezagun gure esku dagoena errotik eraldatzeko: giza neurrikoak eta ekologikoak diren nekazal eredu agroekologikoak behar ditugu. Egin kontu: gure mendiak laborari, ardi, ahuntz eta baso hostozabal gehiago, eta burokrazia eta funtzionario gutxiago behar dituzte, gainontzean, laster museoetan soilik ikusi ahal izango ditugu. ●



Zarrakastelun aurtien izandako sutea.

A ZE FAUNA!

URPEKO KUKURRUKU ISILA



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

Txikitan, beharbada inguruko adinkide gehienek modura “gustatzen ez zaidan” zerbait izatearren, bat batean bota nuen, etxean: “Ez zait *gallito* gustatzen”. Aitak, ordura arte jada nik janda izango nituen dozenaka arrainak aipatu gabe: “Eta limoiarekin?”. “Tira”. Ezin gezurrik esan; baina nire istorioa, kolokan. Handik aste gutxira, osorik nik sekula ikusi gabeko arraina ekarri zuen etxera. “Ikusi! Ikusi zein bitxia; non dauzkan begiak, biak alde berean... Eta zer nolako aho puska, irekiz gero! Honek karramarro eta arraintxoak jango zituen... Prestatuko dugu?”. Bai, noski! Halako itxurarekin, berezia ziur! Ondoren, afaltzen ginela, aitak: “Erreparatu diozu buruari; eta buruko gandorrari ere bai, ezta? Bada, nondik uste duzu datorkiola ‘oilar’ izena?”. Orduz geroztik, denetarik jaten dut, kukurrukurik egin gabe.

Arrain zapalen artean kokatzen dira mihi-arrainak, platuxak, erreboiloak... eta bereziki ugariak eta ezagunak direnak: itsas-oilarrak. Bada, oilar espezieen artean, “oilar handia” da (gaztelaniaz “*gallito del norte*”) ziurrenik guztion etxeetako plateretatik pasatu dena. Zeltentzat, halako arrainak lurra eta itsasoaren arteko loturaren sinbolo ziren; ezkutukoa eta ikusgarriaren artekoa. Garai hartan beharbada jakingo zuten, izaera bakartia izan ohi duten oilarrak negua-udaberria aldera elkartzen zirela sakonera txikiago-ko kostaldeko uretan, arrautzak erruteko. Ez zuten jakingo ordea, askatutako milaka

arrautza horiek, “eremu pelagikoan” jitoan egon ostean larba bilakatzean, arrain simetrikoak direla, eta ondoren jasaten dutela metamorfosia: begietako batek buruko eskuinaldera migratuko du; eta gorputza, zapaldu ahala, ezkerraldera etzango da; hortik aurrera bizi osoa “eremu demertsalean” emango du (itsas-hondoan). Begien migrazioari esker oilarrek ikusmen ahalmena handitzen dute. Haien gorputza erditik zeharkatzen duen “albo-ko marra”-rekin, harrapakinen bibrazioak atzematen dituzte. Estrategia aproposa, eguna hondarretan erdi-hondoratuta eta gaua harrapakinen ehizan igarotzen duenarentzat.

Gure portuetan Erdi Arotik izan dugu oilar handia. Hondoan ezkutatzeko duen trebetasunagatik edo, arrain ikusezinen pare, saihesteko gaitasuna zuela pentsatzen zuenik ere ba omen zen. Arraste-arrantzarekin ordea, aukera gutxi geratu zaie arrainoi. Izan ere, oilarra hala harrapatzen da gehienbat, itsas-hondoetako beste espezieekin nahastuta. Artisau-arrantzaleek, bestetik, tretza (gaztelaniaz “*palangre*”) eta sare finkoak (tresmaila, mailabakarra) erabiltzen dituzte eta bide batez, arrainok banaka, eskuz, ontziratzen dituzte. Koipe gutxiko haragi zuri eta garbi horren eskaria ordea, eskala handikoa da; bereziki Euskal Herrian, Europako beste herrialdeekin alderatuta pertsonako itsas-oilar kontsumoa gaineratik baitago. Gehienetan freskoan kontsumitzeko saltzen da, eta industria transformatzaileetara ere bideratzen da;

OILAR HANDIA *Lepidorhombus whiffiagonis*

TALDEA: Ornoduna / Arraina.

HELDUTASUN SEXUALA: 3-5 urterekin.

BIZIRAUPENA: 14 urte.

NEURRIA: 20-35 cm.

NON BIZI DA? Ozeano Atlantikoaren ipar-ekialdean eta Mediterraneoan. Normalean 100-800 metroko hondo hareatsu eta lohitsueta.

ZER JATEN DU? Itsas-hondotik gertu bizi diren arrain, krustazeo eta zefalopodoak.

BABES MAILA: Europar babestua.

azken horietara, ordea, gehiago bideratzen da oilar handiaren ahaide den “oilar txikia” (*Lepidorhombus boschii*); izenak dioen moduan, txikiagoa, eta albo-hegatsetan orban beltzak dituen.

Oilar handia estimatuz gero, edo aitzak nirekin egin bezala, etxeako kontentzitur gero, erostera goazena non eta nola arrantzatua izan den jakitea onena. Ezkutukoa eta ikusgarriaren arteko lotura. Horretarako, arrandegian galdetu behar da. ●

PIPER ETA BIPER



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Piper sasoia da, airea usaindu besterik ez dago. Bertako biperren (*Capsicum annuum*) aukera handia dugu: pipermina, Gernikakoa, Ezpeletakoa, Angeluko ezitia, txorizeroa, pikilloa, morro edo handia eta kristal piper. Kanpora begiratzen badugu, ezin konta adina dira eta horrek itsutuko gaitu. Piperka kanpotik ekarri genuen aspaldi, duela bost bat mende, eta egun euskal kulturaren osagai ezaguna da.

Uda osoa biziagotzen digute piperrek, piper batzuek, batez ere frijituta edo errera jaten direnek: pipermin, Gernika, txorizero, morro, Angelu eta abar. Uda amaian eta orain kontserban jasotzen dira, etorkizunaren gozagarri: pikilloak, kristal eta morroak erre, zuritu eta bere uretan ontziratuta; pipermina ozpin bixigarrian; txorizeroa, Ezpeleta eta Gernika gorritu eta lehortuta zintzilik eta aurreraxeago mamia kendu eta hauts eginda edo saltza bihurtuta; pipermina eta Ezpeletakoa, ondo gorritutakoan, jakien ongarri ezti edo bizi izango den mehe-mehea ez den hauts eginda.

Piperra nonahi bizi da gurean, eta bertakoez gain makina bat klase berri ikusten da bazterretan. Mundua dugu Euskal Herrira bizitzera etorria, eta mundu bat piper, ez, piper mundu ugari, kultura ugari ekarri eta bertaratua da, dagoeneko hemen. Kultura bakoitzak bere piper kultura du, eta asko eta asko hemen ditugu; ohitzen ahal gara. Gure iloben ilobek bere, bertako izango dituzte etorri eta etorri ari diren Ameriketako, Afrikako, Asiako eta Europa urruneko piperrak.

Bertako piper barietateak babesten dituzten izendapenak baditugu Euskal Herrian: Ezpeletako Piperra Jatorri Izendapena, Angeluko "Biper ezitia" label gorria eta Pipermina eta Gernikako Piperra



BUÑUELGO UDALA

Eusko Labelak. Baina Nafarroa da Euskal Herriko piper soro erraldoia, eta piper jorratuena Lodosa Pikillo jatorri izenak arautzen duena da, Andosilla, Azagra, Carrar, Lerin, Lodosa, Mendabia, San Adrian eta Sartaguda udalerrietan landutakoak soilik babesten dituenak.

Jatorri izenaren geografiatik kanpo dago Buñuel, baina han lehertu zen 1973an, irailaren 21ean "Piperraren Guda" izendatu zena, orduko diktadurako lehen nekazaritza greba. Piper kontserba egiten zuten Nafarroako eta kanpoko industriek urte batetik bestera jaitsi zuten piper kiloaren prezioa 13 pezetatik 4ra, eta nekazariak sutu egin ziren. Piperrez gainezka zituzten gurdiekin ehunen bat traktorek Iruñea-Zaragoza errepidea eten zuten. Gero eta nekazari gehiago bildu, eta trenbidea ere berdin; inguruko herrietara ere zabaldu zen altxamendua: Ribaflo-

rada, Aragoiko Mallen... Piperra orduan ere garrantzitsua zen, eta 10.000 nekazari mugitu omen ziren. Carrero Blanco zen orduan Espainiako presidentea, eta agi denean hark mugitu zuen irtenbidea topatzeko premia. Estatuko Nekazaritza Ganberaren presidentea bitartekari, hilaren 24an buñeldarrak buru, nekazariz mukuru zen Tuterako pilotalekuan lotu zuten akordioa: 6 pezeta kiloko. Nekazari horietako batzuek guardia zibilen eta baita garai hartako Tribunal Especial de Orden Público zenaren aurrera azaldu behar izan zuten.

Piperra maina berezia behar duen landare delikatua da, laborantza arretatsua eskatzen du eta soilik eskuz biltzen da. Tokian tokiko barietateak dira, eta organoleptikoki paregabeak, jaleen artean sona handia eman dietenak. Sortu eta zaintzen dituzten nekazariak bezala. ●

BERTON

GERTUKOARI ETA EKOLOGIKOARI TOKIA EGITEN DION DENDA BERRIA EA HERRIAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Maiatzean zabaldu zituen ateak Eako Berton dendak. Iñaki Biteri eta Iratxe Arriola dira proiektu honen atzean dauden kideak, eta diotenez, aspaldian zuten denda irekitzeko ideia buruan: “Umeak ditugu, baserrian bizi gara, zaintza lanetan ari gara, eta bizitza orekatuagoa izateko saiakeran abiatu dugu proiektua”. Lehen sektorearekin harreman estua dute lehenagotik, esaterako, EHNE Bizkaiarekin lanean aritu zen urteetan Arriola, eta beraz, bazuten loturarik hurbileko ekoizpenarekin eta bertako produktuekin. Eako lonja pixkanaka egokitzeko lanetan aritu dira azken urteetan, eta azkenean, iritsi da ideia errealitate bihurtzeko momentua.

EKOIZLEEKIN ZUZENKO HARREMANA

Euren proiektua abiatu baino lehen, Euskal Herriko antzeko zenbait egitasmo bisitatu zituzten Biterik eta Arriolak. “Igeldo-ko dendan izan ginen, Elorrioko Anbotope bisitatu genuen, Arrasateko Ereindajan...”, aipatu ditu Biterik. Eako dendan erosketak saskia betetzeko adinako produktu eskaintza zabala dute: garaiko loreak, pen-tsua, lurra, olio, esnekiak, kontserbak, zukuak, marmeladak, ozpina, ogia, inguruko artisauen produktuak, garbikariak, kosmetika produktuak, haragi loteak, arrautzak, kafea, prestatutako jakiak, ez-tia... “Denetik dugu dendan. Herrian bertan erosketak egiteko aukera eman nahi



genuen eta kalitatezko produktuak ahalik prezio lehiakorrenetan eskainita”, dio.

Biterik nabarmendu duenez, gertukoari eta ekologikoari garrantzia ematen diote, baina, aldi berean, gehiegizko prezioak saihestuta. “Sasoiaren eta gaitasunaren arabera aldatuz doa, baina ahal dena hemen bertako ekoizleei hartzen diegu. Hiru ekoizlerekin hasi ginen elkarlanean, baina dagoeneko bost dira, eta sarea handitzen ari da pixkanaka”, dio.

DENDA HERRITARREN TOPALEKU

Maiatzetik hona dendak izan duen harre- rarekin pozik agertu dira bultzatzaileak, nahiz eta jakin badakiten udatik negura asko aldatzen dela herriko martxa. “Udan ez dugu aparteko lanik egin behar izan, ateak ireki eta kito, eginda zegoen dena, jende asko ibiltzen baita herrian udan”, azaldu du Biterik. Neguan 900 lagun in-

guru bizi dira Ean, eta kanpoan lan egiten duten askok erosketak kanpoan egiteko aprobetxatzen dutela uste du dendariak. “Bestetik, egia da orokorrean ez dagoela ohiturarik bertako produktuak eta ekolo- gikoak erosteko, jendeak askotan pen- tsatzen du garestiak direla... hor badugu erronka, baina momentuz, oso pozik gau- de erantzunarekin”, gehitu du.

Aurrera begira, erosketak egiteko ez ezik, denda berria herritarren topale- ku izatea ere nahi dute bultzatzaileek. “Dendaren alboko lursaila gurea da, te- rraza bat egin nahi dugu hor, eta barratxo bat, kafea eta tea eskaintzeko”. Erosketa egiten dutenak egoteko leku lasai bat iza- tea nahi dute. “Azken urteetako joera da erosketak egitea ekintza guztiz inpertso- nala izatea, saltzaileekin eta produktue- kin inolako loturarik gabea... hori apur- tzea da gure asmoa”, amaitu du. ●




Nafarroako
Txistorra

**ADIERAZPEN
GEOGRAFIKO
BERRIA**



“ ”

Ez nuke mitin politiko bat emango, baina poesian eroso nago

Leire Ugadi

Martxoan eman zuen Leire Ugadik (Urduña, 1996) *Simulakro bat* (Elkar). Gizarteko botere-harreman eta zapalkuntzek eremu intimoan duten eraginaren gaineko analisia egiten du poesia-liburuak, baliabide poetikoak ideia sendoak adierazteko erabilia. Egun bizileku duen Bilboko San Frantzisko auzoan elkartu gara berarekin.

LEIRE VARGAS NIETO PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC-BY-SA

Hainbat urte daramatzazu poesiaren plazan, baina ez, agian, modu konbentzionalenean: Instagramen partekatzen dituzu poemak, errezitaldietan ere hartu izan duzu parte... Nolatan etorri da aldaketa?

Egunero idazten dut, idatzi eta Instagramen zuzenean argitaratu, buelta handirik eman gabe. Tarte bat egin nuen horrela, liburu formatuan sartu gabe, banekielako askoz ere lan handiagoa eskatuko zuela. Ez nekien, ezta ere, gaitasuna nuenik. Baina gero, izan nuen uda bat non libreago nengoen, eta baneukan hor artxibo bat. Beraz, jolasten hasi nintzen: honek koadratzen du hemen, honek horrela... Puzzle baten moduan.

Eta, bilduma formatuan antolatzeaz gain, paperean argitaratzea erabaki duzu.

Beti idatzi izan dut gauzak aldatzeko asmo batekin. Horregatik, uste dut nire poesiak zentzua galtzen duela nire mesanotxean gordeta geratuz gero. Badago barrenak husteko idazten duenik, baina ez da nire kasua; ni berdin geratzen naiz, eta ez diot funtzio hori egozten. Nire eskuetan, poesiak duen funtzio eraldatzaileria izatea nahi nuke, eta, beraz, zentzu handiagoa zeukan jendeari hel dakion argitaratzeak niretzat gordetzeak baino.

Hala ere, poesia, gauzak modu gutziz esplizituan esan beharrean, iradokitzeo baliatu ohi da.

Gustatzen zait iradokitzea, aukera ematen duelako esateko duzuna bestela entzungo ez lukeen jende batengana heltzeko. Hasieratik adierazten baduzu zein den zure talaia, hori partekatzen edo, behintzat, interesatzen zaienak entzungo dizute, batez ere. Horretarako ere pasatu naiz ahozkotik eta sareetatik paperera, hala, jendearen etxeetan eta sukaldeetan sartzeko.

Eszenatokia atalak testuinguru edo errealitate baten deskribapena egiten du. Zer da errealitate hori?

“Basakeria subliminala” esaten dut askotan [barreak]. Ez da ageriko guda bat, baina gure artean badaude labankadak, agerikoa den zapalkuntza egiturazkoaz

gain. Barneratu dugu bizitzaren gaineko irudi bat non, gozamenerako momentuak badauden arren, astelehenetik barikura zure egunerokoa den lanera joatea, gero nekatuta egotea lanegatik eta, behar bada, lagunen batekin egotea tartean, baina besterik ez. Dena da zapalkuntza konstante bat, eta horrek jendearen aurpegietan bertan nabari daitekeen tristura eragiten du. Orduan, nik zerbait aldatu nahi badut, hori da: jendea libre ikusi ahal izatea.

Eta zelan eragiten du sistemak gure harremanetan?

Sistemak eraiki duenez eszenatokia, bertan ematen diren harremanak ere haren

logikari men eginez konfiguratuko dira. Basakeria-egoera batean ematen diren harremanek giro ez-osasuntsua sortuko dute. Eta, aldi berean, giroak eramango gaitu dinamika berberetan jaustera; beraz, etengabe biraka eta bere burua elikatzen ari den gorpila da.

Testuinguru horretan, egiturazkoa den sistema hauts dezakezu, baina uste dut zirkulua eteteko moduetako bat ere badela harreman-dinamika horiek aldaraztea. Bi planoetan eragin dezakegu.

Gerra-terminologia darabilzu harreman interpersonalez aritzeko.

Hizkuntza hau darabilt bortitzagoa edo irmoagoa izateko, baina baita ere uler-

tarazteko badagoela lehia konstante bat. Nik ez badut zapaltzen, zapaldu egingo naute... Eta harremanetan, berdin: ni onik irteteko, bestea mindu behar badut, hori izango dut bizirik irteteko modua. Superbibentzia-logika bati jarraiki mugitzera bultzatzen gaitu giroak: denona bilatu beharrean, gehiengoak norberarena bakarrik defendatzen du. Uste dut horrek beldurrean duela jatorria, bizitzako beste arlo guztietan, lanean batez ere, ordezkagarriak baikara, eta harremanen mundura ere logika berbera eraman dugu. Denari atera nahi diogu etekina, "aportatu" egin behar du, eta bidean ahazten zaigu gozamina.

Joera dugu besteei egozteko "toxizitatea", baina hemen horri buelta eman diozu: subjektu poetikoa bera da askotan besteei min egiten diena.

Honi erantzuteko garrantzitsua da nire idazketa-prozesua ulertzea. Oso eskematikoa naiz: nik egiten dudana da egoera bat hartu, eta, hori azaltzeko, tartean dagoen pertsonaiaren baten tokia hartu. Erasotzailea izan naiteke, erasotua, hau edo hori sentitzen ari dena... Batzuetan, baita narratzailea ere. Eta, eragilearen azalean sartzen naizenean, uste dut hel-tzen naizela ulermen-puntu batera zeinetara ez nintzatekeen helduko bestela.

Poemak ez dira autobiografikoak, beraz, elkarriketa eta hausnarketa sustatzeko interesatzen zaidan tokian kokatzen dut neure burua. Hala, aukera daukat neure buruari galdetzeko, besteei kalte egiten dieten pertsonen kasuan: "Nondik etorri dira jokabide hauek?". Ez defendatzeko, baizik eta ikuspegi biribilagoa jasotzeko. Are, badaude liburuan poema batzuk egoera berdinari egiten diotenak erreferentzia, baina ikuspegi desberdinetatik.

Era berean, analisi horrekin nire asmoa ez da inor konkretuki egurtzea, baizik eta sortu dugun giroa, eszenatokia, aztertzea. Gure jarrera pertsonalak landuz hura eraldatzea da lortu behar duguna, hala egituran eragiteko; ez dut foku bidimentsional hori galdu nahi.

Gaur egungo dinamika basa atzean utzita, bada, zertan oinarritu beharko genituzke gure harremanak?

Errespetuan. Pertsona bat mundura etorri den heinean, izaki bat da eta eskubide osoa du bizitzeko eta bizitzaz gozatzeko. Horrekin bateraezina da pertsona batek beste batek baino gehiago balio izatea, elkar zapaltzea edo, askotan gertatzen





den bezala, norbere interesei baino ez begiratzea, horrek ingurukoei zelan eragiten dien begiratu barik. Uste dut denok baldin badaukagu errespetuan oinarritutako ikuspegi berbera, lor daitekeela oreka bat.

Maitasuna ideia edo irakurketa politikoa atalduz garrantzitsua da. Zuk, ordea, kontrakoak proposatzen duzu.

Uste dut erabat politikoa dela. Politikoa pentsatzen dugunean analisi estrukturala joaten zaigu burua, eta hori beti daukat gogoan, baina kasu honetan zentratu nahi izan dut hain esplizituki politikoa ez diren gauzetan. Uste dut ez dagoela teoria osorik hori ondo azaltzen duenik. Postmodernismoan korrante pila bat garatu dira; adibidez, ni oso Foucaultzalea naiz. Eta jendeari kostatzen zaio horrek analisi marxistarekin izan dezakeen bateragarritasuna ulertzea. Nire ustez marxismoak egitura azaltzen du, baina Foucaultek botere-harremanean gaitzen duen analisi sekulara da, eta ematen dituen argibideak ez dira bestearekiko kontrajarriak. Egituraren baitan

“ ”

***Superbientzia-logika
bati jarraika mugitzera
bultzatzen gaitu
giroak: denona bilatu
beharrean, gehiengoak
norberarena bakarrik
defendatzen du***

gertatzen dena modu zehatzagoan azaltzen du.

Lehenengo eta azkenengo ataletan, berriz, talde sozial jakinen esplotazioaz hitz egiten da. Zelan lotzen dira bi gudu-zelai horiek?

Liburuan, alderdi bat deskriptiboagoa da, eta besteak ekintza zehatzagoetan jartzen du fokua. Inbutu forman: irakurketa orokorrean hasi, gero zehaztasunetan sartu, eta amaitzen du nolabaiteko iradokizun

edo proposamen orokorrekin.

Lehenengo ataletan, badago simulakro bat. Bigarrenetan, horretarako argibide batzuk ematen dira: hau gertatzen bada, jokatu honela. Gero, badago distrakzio bat; dena bueltatzen da normaltasunera. Eta bat-batean alarmak jotzen du, eta arrisku-egoerara bueltatzen gara. Azken atalak, berriz, *Forja*-k, aurretik ikusitakoaren aurrean ekiteko iradokizunak ematen ditu. Distrakzioek agerian uzten dute, hain zuzen, irakurketa hori egin arren, nola maiz badirudien bat-batean, maitemintzen garenetan, justifikatuta dagoela errealitateari itzuri egitea. Testuinguru horretan egiten duguna ere bada bizitza, ordea; gizartean egoten jarraitzen dugu. Horregatik dago atal hori liburuaren erdian: adierazteko gal dezakegula noranzkoa momentu baten, baina ostean datorrena berriz izango dela simulakro-egoera.

Uste dut erantzukizuna ez dela inoiz amaitzen: ez militantzian, ez harremant. Bizitza bera bada proiektu bat, eta saiatu behar genuke hari ere zerbait osasuntsua sortzeko helburua ematen, biak bateragarriak izan daitezen.

Forja izeneko ataleko poema batzuetan ekintza kolektiborako deia dago; beste batzuetan, bizitzarekin amaitzeko tentazioa.

Oreka bat sortzea zen asmoa. Gura dut jendea bultzatu borrokara eta gauzak aldatzen saiatzera, baina ez nuen gura hori guztiz kolpean eman; neurri bateraino, enpatia adierazi gura nuen jendeak basakeria honen aurrean senti dezakeen etsipenarekiko. Gainera, ekintzailertzan ere badaude momentu baxuak, eta maila kulturallean ere, poesia kokatzen dudana mailan, badago zer borrokatu.

Horrekin lotuta, zure ustez, zer toki izan behar luke poesiak mugimendu politikoan, edo mugimendu politikoak poesian?

Gauzak azaltzeko beste formatu bat da. Kartelak, hitzaldiak, mahai-inguruak... dauzkagun moduan, poesia ere beste elementu bat da. Ez dakit oso objektiboa den, orduan, agian ez da eraginkorrena, baina uste dut ideiak indartzeko, babes-teko edo beste nolabait adierazteko bidea dela. Nik ez nuke mitin politiko bat emango, baina hemen eroso nago. Eta konektatzeko beste bide bat ematen die bai sortzaileari eta bai hartzaileari. Nire kasuan, nire diskurtsoa adierazteko bide argi eta koherentea da.

Hizkuntzan nabari da hiztegi-lan handia egin duzula eta adierazkortasuna bilatzeko moduak esploratu dituzula. Zer ariketa dago horren atzean?

Garrantzi handia ematen diet hitzei. Ez da gauza bera zerbaite hitz batzuekin edo beste batzuekin esatea. Esaterako, egunerokoan, ez dut inoiz esaten “goiz produktiboa” izan dudarik, “goiz eman-korra” baizik. Izan ere, produktiboa produktuarekin eta logika kapitalistarekin lotuta dago, eta horri kontra egin nahi diot. Berba egiterakoan ere neure burua zuzentzen dut esandakorako hitz ego-kiago bat bururatzen bazait. Orduan, badaukat hizkuntzarekiko seta hori, eta hori nire euskalduntzearekin elkartu da. Betidanik hitz egin banu euskaraz, agian nik aukeratu gabeko hiztegi propioa eta itxi bat edukiko nuke, eta zaila izango litzaidake hortik ateratzea. Baina, nire ama hizkuntza gaztelania denez, euskalduntzeak eman zidan aukera nire hiztegi propioa zerotik eraikitzeke, eta kontzientzia batekin, gainera.

Hitzak asmatzen ditut batzuetan, eta hotsei ere asko erreparatzen diet. Horre-

“ ” Gure jarrera pertsonalak landu eta inguratzen gaituen giroa eraldatu behar dugu, egituran eragiteko

gatik, aliterazioa da gehien erabiltzen du-dan baliabideetako bat; hitzen arteko har-monía bat bilatzen dut. Eta erronka egiten diot neure buruari: lerro batzuk dauzka-danean eta ohartzen naizenean hots bat-zuk errepikatzen direla, saiatuko naiz poema amaieraraino eusten horri, eskema horretatik ez ateratzen. Zentzu horretan, idaztea ideiak adierazteko modua da, bai-na baita jolasa ere, eta asko gozatzen dut. Ideiak aurretik landuak ditut, eta idazteko unea bera Legoak eraikitzea modukoa da.

Eta, apur bat atzera bueltatuta, zerk eraman zintuen halako modu kontzientean euskalduntzera?

Nire politizazioaren ondorioa izan zen. Hezi ninduen giroak eraman ninduen gertakari jakin batzuk egiturazko pro-blematiketan kokatzera, eta, hori kon-tuan izanda, giro hori aldatzen saiatze-ko erabakia hartu nuen. Bide horretan, ezohiko tresna batzuk egin nituen nire, eta horietako bat izan zen hizkuntza. Ga-rai hartan eta nire inguruan, euskarak bere horretan bazeukan karga jakin bat. Eskematik kanpokoa zen, alternatiboa edo subertsiboa nolabait, eta iruditu zi-tzaidan garatu gura nuen prozesu dese-

raikitzaile eta hauslea indartuko zuela. Beti gustatu izan zaizkit bere ahoskera eta ezaugarriak, eta erabaki nuen hartu eta nire eraikuntza politikorako proze-suan elementu garrantzitsu bilakatzea. Gaztelania ez dut alde batera utzi, nire ama hizkuntza delako eta hark eskain-tzen dituen aukera zenbait ere intere-satzen zaizkidalako. Baina, nire kasuan, euskarak ematen dit kutsu politikoa eta, aldi berean, ukitu intimoa.

Amaitzen joateko, Gabriel Arestiri eta Joseba Sarrionandiari keinuak agerikoak dira testuan. Zeintzuk dira zure erreferente nagusiak?

Erreferenteak hainbat ditut, ez nuke bakarra izendatzen jakingo. Aresti gus-tatzen zait edukiagatik, baita hitzekin zuzena izateko duen gaitasunagatik ere. Horrez gain, Sarrionandiaren *Gartzela-ko Poemak* (Susa, 1992) eta Miren Agur Meaberen *Bitsa eskuetan* (Susa, 2010) izan ziren irakurri nituen lehenengo poesia-liburuak, eta zerbaite topatu nuen hor. Bizipen aldetik oso urrun zeuden nigandik, baina gustatu zitzaidan zelan adierazten zituzten ideiak, eta zelan ziren gai haien egoera iradokitzeke eta, aldi be-rean, nire esperientzia haienean islatua ikus nezan aukera emateko. Magia egiten zutela iruditu zitzaidan.

Horrez gain, Alejandra Pizarnik da nire autore gustukoena. Haren kasuan, ez dauka diskurtso politiko argirik, baina bere poemek eramaten naute norabait, eta, nahiz eta hark talaia horren irakur-keta politikorik egin ez, nik neuk egin de-zaket.

Edonola ere, erreferente literarioek baino, gehiago inspiratzen naute iritzi-artikuluek, albisteek, egoera baten analisi politikoek... ●





Hitz gezidunak

DOLARE ALDI		BEHEKO ALDEA INDARTSUA		SALBU		ARGI BIHI, GARAU		ERREPIKAPENA ADIERAZTEKO DEUTERIO		HARROIN ERRALDOIAK ETA... ARGAZKIRO KARTA JOKO		PALAUAR BINAKO MULTZOTAN
				BABA MOTA BAT UKATZEKO								
KERETA DAGOENENKO								ENBOR SENDO OXIGENOA				
									NORENA ATZIZKIA ZAREN HORI			
GORANTZ JOAN	DAGO EZTANDA EGITEN DUEN JAURTIGAI									URREA AINTZIRA LOHITSUA		
				PALAN JOKATZEN DUENA					HITANO IRITZIAK ABURUAK			
MUSIKA ESTILO JADANIK												
				AREA AKABO!					NANOTESLA MAGO			BOKAL BIRIBILA OTE MOTA GOGOR
ZEREGIN (ALDERAN- TZIZ) ORDAINARAZI				ATZIZKI FEMENINO BAKOITZ- AREN JOKA- MOLDE		DU, BERARI ZEREZKO ATZIZKIA		AGUR				ZERGATIKO, ARRAZOI
								... EGIN, ZINTZATU NEPTUNIOA				
LEHENGO OGERLEKO HARIL						ZENBAKARRI KILOA						
								BARRABAS, FRIKUN				

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5		4	3				7	
2	9			5	7	8	1	
		6			2			9
		8	1			3	5	
3				7		4		
		5	4					
8	2				5	7	4	3
6				3				1
			7		1			

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Kolpe baten onomatopeia.
2. Martxan.
3. Haur txikia.
4. Bai adberbioaren indargarria.
5. Neba.



EBAZPENAK

4	3	9	7	8	1	2	6	3	4
6	5	7	2	3	4	6	9	6	5
8	2	1	5	5	7	4	3	8	1
3	1	2	5	7	8	4	9	3	1
6	9	6	9	8	4	4	5	1	2
9	4	8	1	2	2	6	3	5	7
1	7	6	8	4	2	5	3	9	6
2	6	3	6	5	7	8	1	4	2
5	8	4	3	1	9	6	7	2	5

O	R	A	V	I	P	O	K	L	I	R	V	H
I	G	A	V	T	N	O	K	O	R	D	U	
Z	T	I	N	Z	I	Z	I	A	R	V	G	P
O	I	D	V	D	S			T	V	N		
O	T	N						V		V	J	
K	A	V	K					P	V	R		
V	K	I	H						O	G	I	
V		V	Z					V		D		
V	N	R	E	O	R	O	K	E	R	N	O	H
L	I	B	S					E	I	L	V	K
V	B	A	D	I	B	A	L	Z		E	S	F
P	H	B	K					E	B		L	



Ea zer gertatzen den, edo zer gertatu da hemen?

 GORKA INTXAUSTI ARANGUREN

Igande arrats goibel eta hotz batez izan nuen, lehen aldiz, Lohi Ensembleren berri. Arabako musika eszena autogestionatuaz hitz egiteko Larraitzek jende jator pila bat eta ni Hala Bedi tabernan elkartu gintuen hartan. Ez dut gogoan zehazki noiz, baina kontakizunari fantasia apur bat gehitze aldera, esango dugu elkarriketa grabatuaren ondoko hitz-aspertuan Aitor *Gartxi*-k lehen pertsonan kontatu zuela; *Kutxi*-n zabalik gelditzen zen azken tabernan, seguruenik.

Gasteiztik beste hiri bateko etxe batera piano zahar baten bila joan ziren bi laguni buruzkoa zen, zeintzuk handik pianoa zatituta bueltatu baitziren furgoneta handi batean, ez dakit zenbat ordu geroago. Izerdi pila bat isurita, sos bat bera ere ordaindu gabe, haatik. Ordu-ra artekoaren bitxiar jabetzen nintzen arren, estrainioena zera iruditu zitzaidan: artean ez zekitela zer egin nahi zuten piano harekin. Ez zuten pianoa jo-

tzeko asmorik, hori bazekiten. Ez adiera ohikoenean, bederen.

"Ea zer gertatzen den" errepikatzen zuela gogoan dut. Horixe otu zait Montehermoso Kulturunekeo atetik sartu eta ikusleontzako aipatu pianoaren pieza bana utzi digutela ikusi dudanean. Ezohiko fantasiaren oroigarri materiala, bateria-makilen baliokide postmoderno bat. Pianoaren gorputza -edo gorpua, agian- brankaz ageri da, klaustroaren erdian eta laranja kolorez argizatua. Erdi biluzik. Barrenak bistan. Zain, ziru-jauak noiz iritsiko.

Esandako orduan agertu dira gizon beltzezkoak, eta nire begi ez-adituen arabera, hiru zatitan banatu dute emanaldia. Lehenengoan, pianoaren tripak hainbat tresnaren bidez ukitu, kolpatu, igurtzi dituzte musikariek. Interesgarria izan da pianoaren piezen eta espazioaren sonoritatearen arteko elkarriketa.

Bigarren atalean ere soinuak zuzenean eta tripetatik sortu dituzte, baina

LOHI ENSEMBLE

NON: Gasteizko Montehermoso Kulturunean.

NOIZ: irailaren 28an.

soinuaren modalizazioa izan da jolasa. Pianoan sortu uhina analogikoki moldatzea, nahieran. Bigarren atal horren barruan kideek biak egin dituzte, txandaka: soinua sortu eta eraldatu. Txanda aldaketa ere ederra izan da. Ping-pong partida bat, pianoan barrena.

Azken atalean zurezko musika tresna soinu-uhinentzako bitarteko bihurtu dute. Hots, modulaturiko soinu-uhinak pianoaren bidez proiektatzen jostatu dira. Horretarako, bozgorailu pareta esku banatan hartu eta distantziekin olgetan aritu dira, beste soinu batzuk sortzea helburu. Oihartzuna oraindik isildu gabe zen, txalo-zaparrada ederraren aurrean bi aldiz makurtu eta musikariak agertu diren leku beretik desagertu direnean.

Bitxia da, baina inor ez da mugitu teknikariak argi zuriak piztu dituen arte. Esango nuke inor ez zegoela ziur emanaldia bukatua ote zen. Hori, edo bestela, "zer gertatu da hemen?" galderari erantzun bila ari ginen denok. ●



LIBURUA

Txiki eta Otaegi Valentzian



ALBERTO DI LOLLÌ

AHANZTURAREN LEIZEA

PACO ROCA, RODRIGO TERRASA

ITZULTZAILEA

BEGO MONTORIO

ASTIBERRI, 2024

BESTIAK LIBURUTEGIA

Zer gertatzen da *Ahanzturaren leizea* Txiki eta Otaegiri buruzko polemika betean irakurtzen denean? Guri iruditu zaigu ez dagoela momentu hoberik Rocaren komikiari bistadizo bat emateko. Orokorrean, memoriari buruz ezarritako begiradak nagikeria ematen badigu ere, kasu honetan esan gabe joan ohi dena gelditu zaigu agerian. Hori bai, komikia ilez-kontra interpretatu dugu. Jarraitu irakurtzen.

2024an argitaratu zuen komikia euskaraz Astiberrik, Bego Montorio Rocaren euskaratzaile zailduak itzulita. Itzulpena azpimarratzekoa izanik ere, kontakizunaren pisua ez daramate hitzek. Istoriara irudietatik gerturatzeak egiten du posi-

ble hitzez kontatzen zaigunaren hutsune politikoak erradikalki betetzea. Binetek kamera zinematografiko baten gisara funtzionatzen dute. Behartzen gaituzte patxadaz begiratzera eta eszena bera behin eta berriro aztertzeraz. Istoria begirada diferenteetatik erakusten zaizkigun gertaerekin osatzen da.

Baina zer kontatzen zaigu hitzekin? Valentzian, frankismoko hobi komun baten indusketa eta eraildakoen identifikazioa arkeologo talde batek gidatuta, fusilatutakoetako baten alabaren borrokari esker. Eta zer gehiago kontatzen zaigu baita ere hitzekin? PSOE ona eta PP maltzurra den istorio dikotomiko espainiar klasikoak, eta frankismoan ustez politika-

rekin zerikusirik ez zeukaten eraildako horien (benetako biktima izendatzen diren horien) erreibindikazioa. Zer ikusten dugu hitzez harago? Ez zegoela politizatu gabekorik fusilatuen artean. Ikusten da klase elkertasunak eman diola belaunaldien arteko lotura memoriari. Hobiratzaille arrunt baten erresistentzia politikoari esker berreskuratu ahal izan direla gorpuak eta haien istorioak.

Ezkerretik artikulatutako memoria batez pentsarazten digu komikiak. Memoria horretan, Valentzian fusilatutakoak eta Txiki eta Otaegi bezalakoak hari eroale beraren parte dira. Idatzi ditzagun errelato propioak lerro artean irakurri behar ez ditzagun. ●



MUSIKA

Besarkatu nazazu gehiago



SIEMPRE ME SIENTO REGULAR

CHULERIA, JODER!

AUTOEKOIZPENA, 2025

IKER BARANDIARAN

Aspaldian entzun diot bati baino gehiagori Bizkaiko Ezkerraldeko Chuleria, Joder! taldea ez dela hain punkia, abeslariak aurretik izan zuen Desorden taldearekin alderatuta. Bueno, Desorden punk taldea zen erabat eta Iratxek 17 urte zeuzkan orduan. Hala ere, bada Euskal Herrian gaur egun Iratxe baino abeslari punkiagorik? Ezetz esango nuke. Eta, are gehiago, zer da ba punka? Eta zer ez?

Hasteko, Chuleria, Joder! beste talde bat da, erabat desberdina, Iratxe, Antton, Myriam eta Enekok osatzen dutena. Taldearen sorreratik erakutsi zuten, punk-rockaz gain, poesia, bai poesia, kaleko izaera eta rocka zentzu zabalagoan landu nahi zutela. Zuzeneko

oso biziekin, agertoki edo espaloi muturrak banan-banan borrokatu eta irabazi dituzte.

2024an *Urbe* izeneko disko lotsagabea eta aurreiritzi apurtzailea grabatu eta kaleratu zuten. Ordutik jarraitu dute non-nahi jotzen eta aurten *Siempre me siento regular* bigarren lan luzea erditu dute, hau ere Haritz Harreguy estudioan. Haien punk izaera ezbaian jartzen dutenen alde, egia da batzuetan taldearen eskaintza punk musika estilo hertsitik aldentzen dela nahita, jakina.

Hala ere, diskoa *La primavera* punk-rock azkar eztandak zabaltzen du, melodia sarkorra barrenean iltzatuta daukana eta intentsitatea biderkatzen duena. *Regular*-ek uztartzen du intro surferoa,

Volquete-ren marka, riff rockeroak eta iluntasuna. *Juliana* hit-a da, instrumentalki eta erritmoz ondo jantzitako pieza rockero indartsua, ukitu 'kanalla' ere baduena. *Maitia*-n, ausartagoa, probatu dituzte bestelako sonoritate eta tenpoak eta emaitza oso interesgarria da. *Pilas alcalinas* kantu indartsuak dauka RIPen DNA: inor bizirik utziko ez duen punk-rock erasokorra. *Nazka*-n, Miren Narbaizak eta Joseba B. Lenoirrek aberastuta, Iratxek bestelako erregistroak erakutsi dizkigu eta, jakina, emaitzak amorru, indar eta dotorezia batzen ditu maisuki. Bukatzeko-edo, *No es el fin*-ek batzen ditu Dead Kennedysen pareko erritmo jolas eta irmotasuna, eta bizkaitar hauen esentzia. ●

Paristik deika

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Behin edukiko ordu bat libre, egiteko ezer berezirik gabe; eta banenbilen Bidasoaren inguruan paseoan, udazken epelaren masajea aurpegian sentitzen. Baina paraje horietan maiz samar promenatzen denari gertatu ohi zaion moduan, telefonoaren *roaming*-a zoratu zitzaidan, bestaldera pasatzeko gogoa jarri edo, auskalo; Izarkom utzi eta Bouygues harrapatu zuen.

Dardarka patrikan. Ez nuen zenbakia ezagutzen, baina hartzea erabaki nuen hala ere. Frantsesez hasi zitzaidan beste aldekoa, bere onetik aterata. Azkar, hitzak janez, ondo ulertzen ez nituen arren –gauza hauek ez baitira gehiegi lantzen Hizkuntza Eskolan eta klaro–, maldizioak ziruditen gauzak esaten Koprolaliak jotako norbaiten kopuruetatik gertu. Urduri, hitz batean esateko.

Lasaitzeko eskatu nion, ezin zuela hainbesterako izan.

–Ez dela hainbesterako? Ezetz?! Oraindik hau aguantatu behar, *putain*, esango dizut nik, esango dizut ze zerrikeria egin didan. Mokordo puska hori. 27 egun! Imajinatu behar nuen, baina ez, emaiouzu konfiantza Manu, ez dizu hutsik egingo. Kaka gogor eta lehorra! Ez zait ba etorri ospa

egingo duela esanez?!)

Ez nuen ezer ulertzen. Esan egin nion.

–Eta uste duzu nik zerbait ulertzen dudala honezkero?! Zer iruditzen zaizu, nik zuen guztien *connerie* hauek denak beti ulertu behar ditudala?!)

“Bale Gorka, horrela es mutico”, esan nion nire buruari. “Hatu annassa. Ordena pixka bat jarri behar duzu elkarriketa honetan ze, argi dago jaun honek hitz egiteko premia larria duela”.

–Ea, lagundu nahi dizut: non zaude? –behin irakurri nuen krisi nerbioso bat jasaten ari den jendea on egiten diola bere burua fisikoki kokatzeak.

–N-non... zer?

–Zer ikusten duzu?

–Ura. Ib... ibai bat.

–Hara, nik ere bai. Zurekin nago honetan, ados? Biok ari gara ibaiari begira. Ura. Ura lasai dator. Zu ere ura bezala, Manu. Ze, Manu duzu izena, ezta? Hori ulertu dizut.

–*Mais qu#&%!* Manu, bai.

–Ea, non dago ibai hori? Non zaude, Manu?

–Pa... Parisen.

–Parisen, ados. Parisen zaude ibaiari begira. Sena, ezta?

–Sena, bai. Paris. Manu. *En fait*, gehienentzat Emmanuel.

–Ados. Eta norbaitek utzi egin zaituela ulertu dizut. Hala da?

Berriz hasi zen txakurrarenak esaten, Parisko estolderia guztia ahotik botaka. Hustu zen arte itxoin nuen oraingoan. On egin zion, zentzatuago zirudien berriz hizketan hasi zenean.

–Situazioa *extrêmement* larria da. Norbait behar dut.

–Bai, bai, ulertzen dizut Manu... Emmanuel –batez ere bere emozioak ontzat eman, Gorka.

–Ah, azkenean! Zuk ulertzen nauzu.

–Bai, bai, hori esan dizut.

–Zuk bai! Inork ez ninduela ulertzen uste nuen. Eta zuk bai! –tira, konektatu genuela zirudien– Zu behar zaitut –baina, era berean, kontua pixka bat arraro jartzen ari zen. Ezin tipoa botata utzi ordea. Desesperatuta zirudien.

–Zurekin nago Emmanuel. Manu. Lasai egon.


–Ados, ados. Orain garbiago dago dena. Baina hona etorri behar duzu berehala, dena prestatuko dut zu izendatzeko.

Zin dagit momentu horretan ezagutu nuela ahotsa.

–Izendatu, Macron jauna?

–Errepublikako lehen ministro, alegia. Inkonpetentez inguratuta nago eta ni ulertzen nauen norbait behar dut alboan. Gaur arrats...

Juxtu orduan moztu zen deia, telefonoak Bouygues uztea eta Izarkomera itzultzea erabaki zuelako. Ez zirudien ba lan-eskaintza txar-txarra ere. Enfin, kafesne bat hartzera joan nintzen. Ez zidan berriz deitu eta gero jakin dut Manu abandonatu zuen tipoak azkenean berarekin itzultzea erabaki duela. Matignongo lanpostu hori okupatuta dago berriro. Ea hemendik pare bat astera lehertuko den gobernu-krisian zorte hobearen dudaren telefonoaren estaldurarekin, ez baitago asuntua horrelakoak pasatzen uzteko. ●



2026 Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Urteko gaia: Fruitu arbolak



Prezioa **15€**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik
gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Lantokirako erosoak eta atsegina



Ikastetxerako material hezitzailea



Baratzean eta orokorrean landareekin
egitekoak ilargiaren arabera



Sasoiko eta bertako erosketak antolatzen



BERTAKO -rekin, BAI!

Euskara da gure territorio
libre bakarra

bertako
igogailuak | ascensores

ARABA 945 712 822 **NAFARROA** 848 870 917
GIPUZKOA 943 903 450 **BIZKAIA** 946 523 935
WWW.BERTAKO.EUS